


BITORIANO IRAOLA ARISTIGUIETA

O R O I T Z A K
eta beste ipui asko



AUSPOA LIBURUTEGIA

SB-774

J Bilbas ⁹⁷⁸⁹

Pianity

Dec. 1962

O R O I T Z A K

to beste ipui asko

AUSPOA LIBURUTEGIA

- 9 -

SAITIO

Colección Auspoa - Plaza de Santa María, 2 - Tolosa

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 180 peseta.

Atzerrian: 275 peseta.

Ongilleak: 350 »

Ale bakarra: 25 »

BITORIANO IRAOLA ARISTIGUIETA

OROITZAK
ta beste ipui asko

AUSPOA LIBURUTEGIA

DEPÓSITO LEGAL S. S. 46—1962
N.º DE REGISTRO S.S. 6988—1962

ARKIBIDEA

	<u>Orrialdia</u>
Bitoriano Iraola Aristiguieta	9
Oroitzak	13
Tranbian	18
Errejidore berriya	23
Etxian	28
Sagardotegiyan	34
Kontrabando billa	38
Bertsolariyak	43
Kalian	48
Udaran	53
¡Arrayetuak!	58
Trenian	64
Beti bezela	69
Erostuna	73
Kartzelan	79

Jolasa	82
Gau erdiyan	86
Barberuen semia	90
Estropoz bat	94
Zarpa	98
Neguko festak	104
Besteren etxian	110
Gauza pasiak	115
Eskeñi bat	120
Gertatzen dana	125
Bidean	129
Betikuak	133
Baztanga	137

BITORIANO IRAOLA ARISTIGUIETA

Pasayan, San Juanen jayo zan 1841 urtean, baña bere denbora guzia Donostian egin zun.

Azpeitiar batekin ezkondu zan, Katalina Alvarez'ekin

Legazpi kalean bizitu zan, bostgarrenean. Litógrafo zan eta lan-tokia etxean bertan zeukan.

Makiñak mugitzeko, asto bat ibilli arazten zuten bueltaka etxeko patiñan.

Gerratean, karlistak Mendizorrotz'tik Donostiari tiratzen ziotenean, bein granada bat Iraolaren etxean sartu omen zan, bestea berriaz kalean erori. Iraolak biak jaso, bakoitzari eroritako eguna jarri ta etxean gorde oi zitun oroipengarritzat.

Bein bañan geyagotan Donostiko kontzejal izan zan. Bera izan zan tamarindo arbolak ekartzen alegindu ziranetako bat.

San Tomasetan edo, iñor erregaluekin etortzen bazan, bera etxean bazan, ateondora joan, etorritakoari ostikoa eman ta eskalletan bera bialtzen zun bere erregalu ta guzi. Losintxa gutxi arekin.

1899 urtean Parisa joan orduko Exposiziora ikustera ta globo batean igo omen zan.

Euskal bertsoak erruz jarri zitun. Orduko aldizkarietan banatuta agertzen ziran. Gai guzietako bertsoak izaten zitun, bañan ayetako asko par-eragitekoak. Maiz eman izan zioten saria.

Ipuyak ere asmatu oi zitun. Par-eragitekoak denak edo geyenak. Artara zun bere joera. Emengo denak ere alakoak dira. "Baserritarra" zeritzayon aldizkaritik artuak daude. Ipuyaren bukaeran bere izena jartzen du; bañan lau bat aldiz izengoitia: Txuri ta Sei; bitan ez izenik eta ez izengoitirik. Bañan eza-gun dute Iraola aita dutena.

Teatro lanean ere sayatu zan. Komeri, zarzuela ta bakar-izketa, amabost ale: "Bi itxuak", "Petra txardin-saltzallia", "Ardita beti ardit", "Pasayan", "Gabonetan", "Txomin

Donostiyan", "Zeladore baten estuasunak", "Joxemaritarrak", "Xordo", "Leokadia", "Pul-puba", "Onentzaro gabe", "Ergobiyan", "Ix-kiña Mutrikun".

Gizon bikaña omen zan, altu ta lodiya.

1919 urteko Agorrillaren 19'an il zan.

Eriotzaren berria ematean, ala zion Euskal Esnealea aldizkariak:

"...Makiña bat ipui, izkirimiri ta gauza alai idatzita joan zaigu Iraola gizarajoa...

"...Olerkiak idazten ere ederki zekien. Emen bertan agertu ziran Euskalerriko txori-yak eta beste asko. Idazti batzaldietan ere sari ugari irabazi zitun donostiar jator onek.

"...Oso donostiarra zan Iraola. Donostiko euskera zan berea; Donostia zarreko ipui ta gertaerak ederki zekizkian; arrantzale, txardiñ-saltzalle, zeladore ta orrelakoak ondo ezagutzen zituan.

"...Il da... il onen 19'garren egunean. Urte asko zituan bañan sendo ta tente zebillen oraindik.

OROITZAK

Zibillak esan diote-ren kantua entzuten detan bakoitzian, beti gogora etortzen zait *patrona* edo etxekoandre gazte Kataliñ, Arrandei kalian izan nuena: bazirudiyen kantu tristiak dantzarako gogua ematen ziyotela.

Bere etxian jaten genduenari, bazkaltzeko ordua allegatzian, ala esaten zigun noiznai neskamiak:

—Etxeko andria atera egin da, eta nola giltza guziyak berekin eraman dituen, gaur eztago bazkaririk.

—Neska ¿zer esaten den? —oso sutua erantzuten ziyon azkeneko gerran koronel izanduzan batek. Etzuen besterik egiten, juramentuak eta Idiazabalko gazta jan.

—¿Ez dezu aitzen zer diyon? gaur ez degula bazkaririk.

—¿Baña nora joan da infernuko andri ori?

—Aurreko dendara; or bada neska bandera bat, aspuak baña belarri txarraguak ditu eta ordu guzietan kantari ari da.

—¿Neska, ekatzen bazkariya! —diyo berriz ere koronelak txingarrak botiaz.

—¿Nik zer bazkari nai du ematia, neroni ere gosiak amorratzen banago?

—¿Au suerte madarikatua! —zidon koronelak, gaztari golpia tiriaz zerbait sosegatzeko.

Dendako neskak txorixo bat edo bi prejitu bitartian bere senargai sastre anka me batenztat, irrintzika kantari ixiltzen etzan, eta patxara ederreko etxeandriak neska tuntun ari esaten zion baba zeriola:

—¿Nork izan lezakian boz ori? —eta neskak txorixuak beste aldera jiratuaz eta tene-doria txupatuaz, erantzuten zion:

—¿Boz au? ¿Aitu izan balira orain iru urte eta lau illabete kantatzen nubenian *Artillero dale fuego*, esango zuen ura etzala kantatzia, ura zala arpa jotzia!

Gure etxeandrea txoruak, alako afiziyua artu zion kantuari eta panderua jotziari, etzi-

gun pakerik ematen. Ala askotan etzan gogor-
ratzen munduan bazkaririk zanik; orregatik
noiznai soparen lekuan ematen zigun ingur-
dua. ¡Ura etzan etxia, ura zan *kuartelillua*!

Neri igual ekartzen ziraten koronelaren
elastikua, elefantia ziruriyela, eta nik berriz,
batere erreparatu gabe, igual jazten nuen, eta
neska abo zabal ura asten zan farrez lertzeko
zoriyan.

—¿Zeri farra egiten diozu? —esaten ni-
yon suturik.

—¿Baña, gizona, zer jarri du or? ziyon
neskatxak.

—Nere elastikua.

—¡Bai zera! Erropa zikiñak sartzen ditu-
gun sakua da ori!

Eta askotan koronelari igual ematen ziyoz-
katen nere barrengo erropa zuriyak. Ala, ba-
tian, nere gantzontzilluak jartzera dijuela,
esan ziyon erdiko gelan dagon Meltxorrek,
egunian bi peseta pagatzen dituenak ardorik
gabe:

—¿Bañura al zuaz?

Eta ontan, etxekoandria kofre gañian eseri
ta panderua joaz *gorgorituak* bigaltzen zizkan
kayolan zeguen karnabari. Kantari asten za-
nian, etzuen gauza zuzen bat egiten: batzue-

etan artzen zituan barbantzuak eta, eltzian sartu biarran, igual sartzen ziyozkan kofrian koronelari. Beste askotan, azeitunen platera zalakuan, igual jartzen zizkigun orraziak mayian.

Batian, ojera nuala, arkitu nintzan jaun batekin gau artan etorriya, eta gure etxean-driak, ez bat eta ez bi, sartu zuen nere gelan.

—¿Zein zera zu? —galdetu niyon zerbait izutua.

—Ni naiz Txomin Txiki —erantzun ziran oi gañian eseriyaz.

—Egin nazazu mesere ortik ateratzia, baña aguro.

—¿Zergatik?

—Zergatik oi ori neria dan.

—Neri eman dit etxeoandriak, eta, zuria bada edo ez bada, —maindirepian burua sartuaz ala diyo: — or konpon, Mari Anton.

Au gertatzen zan bitartian, etxeoandria komodari arrimatu eta kantari ari zan *Abre la puerta, Pepa*,... eta joan nintzayon esatera.

—Nik gaur non lo egin biar det?

—¿Zer gertatzen da bada?

—Nere oyian sartu du gizon bat oso erre-zelo txarrekoa.

—¡Jesus, Jesus, au burua!

Eta joan zan korrika nere gelara jaun arri esatera :

—Oi ortan eztu egon biar, zergatikan dan besterena, eta, nola oi librerik ez daukatan, egin biar dit mesere segiduan etxe ontatik joatia.

Baña Txomiñek nola ziyon *nones*, asi zan ojuka. Ontan esnatu du koronela, eta oyetik saltatuta joaten da gelara, asten da ukabillazoka kanpotarrekin, bada eskerrak laister andik itzul egin zuela, bestela utziko zuen aran moria baña moriago.

—|Au da urdakeri bat iñon ikusten ezta-na —ziyon, eskallerak iya muturrak ausiyaz pasiaz.

Andik laister, gure etxekoandria biartu zan uztera etxia, baña nola ezkondu zan gitar jotzalle batekin, jan ziyozkan etxeko puska guziyak iru astian, eta gero Jaunari graziyak nola alargundu zan, bizitu zan koñata batekin, txit kontentu, sukaldeko lanak egiñaz, panderua juaz eta *Abre la puerta* kantatuaz.

“Baserritarra” 55, 10-11-1906

TRANBIAN

—Andretxua, ¿norako biar dezu billetia?

—Ernanirako.

—Baña au, Erreterira dijua.

—¿Eta zer! ¿Au ezta tranbia merkatu dutena?

—Bai; tira, jatxi, jatxi.

—¿Baña bueltan ez al da joango Ernani-
ra?

—Ez, Salamancara; tira, mugi.

—Orduan egingo detana da, nola bidia badakitan, Errenteitik jo, San Markos, andik jo, Astigarraga, jo, Ergobia eta jo Ernani; orla debalde aterako zait.

—Ala da; gero jo kanpan bueltakuak erri-
yan, allegatu zerala jakiteko.

—Ēkatzu, naiz txartel txikiya izan, bat, al dezun merkienetakua. ¡Jesus! aguro ez banaiz joaten, ilko nau nere osabak. ¿Zuk bada-kizu zein dan nere osaba?

—¿Nik?

—¡Gizona, Juan Jose! Bakallua a la Bizkaina kutxariakin jaten du. ¡Bazenekizuke zer makina ekarri duen Mejikutik!

—¿Zertako, ortzak garbitzeko?

—¡Ka! Sagar panpandojak egiteko. ¡Eta tiratzen ikusiko bazendu!

—¿Gurdiren bati??... ¡Eskumuñak!

—¡Arrayenia! —diyo batek ezin igorik— ¿merkatu dala? or sartu dira Tolosarako bi, merke zurriyan. ¡Eztago anka non jarririk.

—Zu, —diyo diru biltzalliak—, or ezin joango zera.

—Zergatik?

—¡Zergatik erorita il zindezkian!

—¡Eta zuri zer dizu!

—¡Igo, igo! (eta ojala lertuko balitzake zapua bezela).

—¡Auxen da gizona sartu zaiguna —diyo txestuan katuekin dijoan andre batek—, bi bider kallua zanpatu dirazu.

—Zertan jartzen dezu nere oñ azpiyan? ¿Naizu aidian joatia? Esan zayozu orri, aruntzago joateko.

—Zeñi?

—Txerriko umia besuetan kantari daraman orri.

—¡Zu, gizon! —diyo alargun batek—.
¿Egingo al dirazu mesere ez bultzatzia? ¿Ez al dezu igual bultzatzia beste erozein?

—¿Nik bultzatu? ¡Emakumia, kanpora begira nua!

—Eztakit ukalondua edo ardatza dan, sa-yetsetik sartu nai dirazuna.

—¿Ez dezu ikusten jende geyegi gaudela?

—Orregatik zuk etzenduen igo biar.

—¡Zuk ere amar zentimorekin kanpo aundi-yak biar dituzu!

Emakume borobill batek, amar urteko mutill antxume moduko bati deitzen zion:

—¿Non zaude, Juanito? ¿Ondo al zuaz?

—Neskame baten txestuan burua sartuta nua.

—¿Zer?

—Eta sugururra, manteketan, ama!

Emakumiak bere semia ito ez dedin eta estutasun artatik libratziagatik, asten da ukalondoka eskui ezker, baña nola iñor mugitzen ez dan, jo du aldameneko bibote luze bat, eta kopeta illundurik ala diyo:

—¡Pazientziya'ere akabatu egiten da, bes-

te edozer gauza bezela; nik ez diyot faltatuko, baña zulatzen banau...

—*Para, para*—; gelditu da tranbia, baña lau atera badira, sartu nai dute amarrek.

—Tira, igo, igo—; diyo alabari lepotik elduta señora moduko batek.

—Eztago lekurik —diyo kobratzalliak.

—¡Eta zer! —diyo señorak mantilla ezin moldaturik— ¡Gora, gora! —eta Pasai San Pedron bizi dan gizon lori batek ala diyo farra ezin gorderik:

—¡Zer perkalezko señora degu berriz au!

—Farra egiteko obiak zerate, tokiya eskeintzeko baña. ¡*Que caballeros!*

—Ixo, ama, bestela aitu egingo diyote.

—Ori nai det nik, aitu dezatela, ia arpegiya eroritzen zayoten lotsatuta—. Eta ala diyo San Pedrokuak, kartutxera diruriyen anka erakutsiyaz:

—Ni altxako nintzake pozik, baña kalluak miñ ematen dirate.

—¡Zu, kobratzallia! Gu ezin joango gera onla zintzilik larruzko tiranti oyetan, Pamplo nako txorixuak bagiña bezela. Onla faltatzen diyonak señora biri, eztu ez kriantzik eta ez jantzi dezente bat.

—¡Baña aitu beza! —diyo kobratzalliak.

—Nik uste det, or dijoazen oyek ederki-

yago egingo lutekela, guri tokiyak uztia, baña non da edukaziyua!

—¿Nai ez badute! —diyo kobratzalliak—, ez daukate obligaziyorik.

—¿Nik aldameneko, gizon lori au, zertan bultzatu biar det, ezeren konfiantza gabe?

—Igual da —diyo loriak—, nola altxatzeko asmorik ez detan...

—¿Zu're kaballerua al zera? ¿ondo bastua dirurizu bada!

—Jakin dezazun etzaitutala geyago txutik ikusi nai eta kriantzako gizona naizela, alxtuko naiz.

—¿Noiz?

—Errenteira allegatzian.

—¿Au al da postura dezentia señora birentzat?

—Ixo, ama, allegatu gera ta.

—¿Eztago zure aita gure posturari begira.

—¿Traaaaaa! ¿Allegatu al gera?... ¿Noiz-bait!

Onlako asko badira tranbian ibiltzen diranak, beti nai dutena egin biar dutenak; orren-gatik billatzen det ederki, tontuen papera egiñaz, orlakuagatik ez altxatzia eta itxusiya bada oraindik gutxiyago.

“Baserritarra” 60, 19-1-1907

ERREJIDORE BERRIYA

Meltxor Txoko, errejidore atera bada're, ¿eztu tronpeta biarrik, arrayietan, aitzera emateko zer egin duten ¡*Mekatxis!* Geroztik eztula egiten duen bakoitzian, badirudi kristal guziyak ausi biar dituela.

Oraindik denbora asko etzala ¿zer zan Txokoren familiya? ¡Utsa! Tratu guziyak jende bajuakin eta *para usted de contar*. ¿Eta bere alabik zarrenak, zein zuen gizon gaya? Ayuntamentuko laugarren *kapataz* errena edo kojua, sekulan jantzi beltz baten jabe egin etzana.

Txoko errejidore atera bada're eskerrak Nikomedes amugilliari, eta geyena txokatzen dana, erriko etxian anka jarri duenerako, ori da

familiya, ez odolki bat eta ez potajerik begiz ikusi nai duena.

Alabak ere, eskuak izarditzen zayozkan aitzakiyakin, aguro laja zuen senar gai kojua, laugarren kapataza. ¿Eta Txokori egin ziyotena? Oi gañeko batekin *bata* luze luze bat, txino berdez betia, ura jantzi eta balkoira ateratzeko, mundu guziyak ikusi zezan.

—Errejidoría *batik* gabe eztago ondo —zityon errejidorak eta ateratzen zuen balkoira Nazarenua bezela.

Ura ikusirik, ala diyo aurreko mutil koskor batek :

—¡Ara, ama! aurreko Txoko andre jantziyan dabil.

—Baliteke; nola errejidore egin duten, erotu egingo zan.

—¿Eta zer da errejidoría?

—Obispua bezela.

—¿Orduan elizan egingo dute funtziyua, e?

—Bai; bigar kantatuko diyote *Te Deum*.

Txokoren andria nola etzeguan alare txit kontentu, ¡zer egiten du!, balkoyian geyago erakusteko, erosi diyo prenda-etxe batian *frak* bat, zerbait gorritua baña ez aiñ txarra, txalozko zapatak eta erraztun zabal bat; denak

jarri eta eraman du erretratatzalle merke baten etxera erretratatzera.

—Begira beza —diyo andriak—, guk nai degu erretratua beko sarreran jartzia, mundu guziyak ikusi dezan, eta nai baliyoke banda zabal bat jarri ¡beorrek ez daki zenbat estimatuko genduken!

—¿Eta bai al du gurutzeren bat?

—Ez, jauna, baiña prozesiyuetara joateko, ederki emango liyoke, eta alkatia, nola aiñ fina dan, asko alegratuko litzake.

—Nik orain ez tet bandik —diyo Txokok—, baiña Ayuntamentuak ez tu ezer esango orrenгатik, zergatik nai deguna egiten degu.

Arrazoi du —diyo errejidorak—. Begira beza, On Nikomedesi erregali bat egin genionian lau errejidoren artian, onek jarri zituen bere patrikeratik lau peseta, eta gañera relojera bat bordatzen ari da bere alaba, Alkate jaunari erregalatzeko.

—Gauz oyek ez dira esaten —diyo Txokok seriyo seriyo.

—¿Zergatik ez? —diyo errejidorak—, orlako modestiyakin ¿nora joaten dala uste dezu, nora?

Orla dabilkite gure gizona, batian bere batakín eta bestian besteren frakekin, izardi patzetan iya lerturik.

—¿Ez nezake geyago! —diyo kasaka ezin aterarik eta masallak puztutuaz asnasa artzeko.

—Etzazula atera, gizona, —diyo emaztiak—. ¿Ezdezu ikusten ederki ematen dizula?

Ainbesterañoko urgullua artu zuen famili orrek, atzo igo zan etxe artara emakume ezagun bat karta batekin, eta ala diyi arrejidorak begiyak ziarka jarriyaz:

—¿Zer dakazu?

—Karta bat, Txokorentzat.

—¿Zer esan dezu? ¿Ez al dezu oraindak izketan ikasi?

—¿Zer da bada?

—¿Zer dan? ¡On Meltxor jauna esaten da! Gañera iya badu *Usía*, ¿zer uste dezu zuk!

—¿Zer usía ta zer danboliña! neretzat ori da gizarajo bat.

—¡Mingañ ori!

—¿Ez al det bada neronek ikusi izandu, zuk patatak zuritu bitartian, mantala jantzita eskobakin bakallua garbitzen?

—Ori egiten zuen frankeza guziyan.

—Arrandeira joanda bixigua kapapian ekartzan eta oliyuen botilla nola batian erori zitzayon?

—Gezurak dira denak.

—Oraindik peseta bat artzeko nago, nai baidit eman.

—¿Zu?

—Ni Alaben egunian ekarri nituben pastelenak berak aginduta, nobiyua konbidatzeko.

—Nik det kulpa, zu bezelakuakin nere burua errebajatua.

Ontan etorri da Txoko, kasaka ezin erantzirik, bizkarrian tarrantara aundiya eginda, eta ala diyo andriari:

—Etzaitiala berotu, Mikolaxa; onla ezer eztakitenak despreziatu egin biar dira.

—¿Zu, salda garbi! ez gero neri etorri koplakin ¿aitu dezu?

Txokok *tri tra* itxi du atia indarrian, esanaz:

—Estakat asarretzeko gogorik Jaunari graziyak, bestela zeladore bati deitu eta perreran ziñan nere agintzez. Etzaitiala aztu, errejidoria naizela.

“Baserritarra” 61, 2-2-1907.

ETXIAN

Lengo egunian, ez bat eta ez bi, sartu zait nere lan tokiko gelan emakume bat, pande-ruen moduko arpegi batekin, txestua besoa batian eta guardasola beste eskuan zuela, esanaz :

—¿Zu al zera Meliton?

—Serbitzeko.

—Urte askuan. ¿Ezkondua al zera?

—Bai.

—¿Eta andria?

—¿Nere emaztia!

—¿Ezkondua ura're?

—¿Zein!...

—Zure lizentziyakin eseritzera nua.

—Zure etxian zaude.

—Eta txesto eta guardasol au mai gañian ederkiyago egongo dira.

—Bai; gutxiyago nekatuko dira or.

—¿Zuk bai al dakizu, amarretako garayian, *Baserritarra* letzen detala?

—Ez; baña itxura badezu jazkeran.

—¿Egingo al nazu mesere ematia baso bat ur?

—(*Deika*) ¡Manuel! ¡Manuela!

—Jauna.

—Ekatzu baso bat ur. ¿Esponjik gabe naitzazu?

—Nayago det esponjakin. ¡Anís del Mono'ren ttantto batzuek balitu!

—Ekatzu Anixen botilla're kopa batekin.

—¿Badakizu gero asko izkribatzen dezula eta batzuetan far eragiten dirazula?

—¿Bai, e?... Utzi denak mai gañian, Manuela.

—Ez; ura eraman lezake —diyo andriak kopa betiaz.

—Eraman zazu ura, Manuela.

—Bada esaten nizun... -¡Auxen da Anis primoria! ...beti umore onekua zaudela, orlako gauza parragarriyak izkribatzeko.

—¿Beti, e?

—Izkribatzalliarri ez diyo ezereen ajolik ¿ala?

—Nola kriantza gabiak geran, ez digu eze-
rengatik ajolik.

—¡Ja, ja, ja, ja! ¡Esaten nuen nik zuek
zer txori ziñaten!... ¡Orixen da erretratu ede-
rra daukazuna! ¿Zein da ori, Castelar?

—Ez; Igeldoko danbolinterua. ¿Baña ja-
kin al liteke bisita onen motibua?

—Esango dizut *naturalidade* guziyakin
—diyo bigarren kopa betiaz—. ¿Eta beste
cuadro polit ortan dagona ezta katua?

—Bai; atzo egin zituen iru ume.

—¿Zuk jakingo dezu nola seme bat detan
Ameriketari?

—¿Nik?

—Ez da nik diyotalako, bañan ikusi dezun
tontuena zan eskolan.

—Tontua izateko, eztu bada eskola bia-
rrik.

—¡Argatik besotik elduta, botako zuen
maisua erreka zulora, esanaz! : “¡*Anda y
que te enseñe el Obispo!*”

—¡Il etzutenian!

—Bada arri nai niyozkake bigaldu *Baserri-
tar* pilla bat kofrian.

—¿Zeñi, Obispuari?

—¡Baña batian letu nuen etzeundela txis-
tietako egun artan!

—¿Misteriyo al da! ¿Noiz falta ez dira atsekabe edo desgustuak!

—¿Desgustuak? ¿Baña zuk ere izaten al dituzu desgustuak? —diyo bigarren kopa garbituaz.

—¿Zergatik ez?

—Nik uste nuen orren alegria izanda, etzenituela penak artakotzat artzen.

—¿Baña zuk zer uste dezu, gitarra jotzen eta dendeletian pasatzen degula denbora?

—¿Illabeteko *Baserritarra*'ra suskribitu ta askoz merkiago aterako zait ala ¿ez da? (1)

—Bai; gutxienaz izango dezu lau duroren meseria illian.

¿Ni zuzen nabil nere kontuetan!

—¿Zuzen zabilta, bai, kopa okertuaz!

—¿Armayo gañian daukazun ori zer da?

—¿Ori?... Trufa.

—¿Eta zer da trufa?

—Ameriketako egaztiya.

—¿Eztu an bero aundiya egiten?

—Bai; olluari jela ematen diyote.

—¿Zertako?

—Arrautza prejituak ez egiteko. Manuel (deika), jaso zazu botilla ta kopa ori.

(1) *Baserritarra*'ren ordaindu bearrak auek ziran: "Bakoitza txakur txiki bat" eta "Urteko bi peseta".

—¿Zenbat pagatzen da illabeteko suskri-
ziyua?

—Ori buru egiten duenak esango dizu.

—¿Eta zein da ori?

—Zuk biar dezuna: ¡beterinariyua! Baña ezta Ameriketara izana, (*txutik jarrita zerbait errabiz*) baña badet nik tximu edo mona bat, galtzerdiyak eta paperezko loriak egiten dakiyena eta... jeniyo txarrekua gañera.

—¿Zer du bada?

—¿Zer izango du! Emakumiari salta ta erremeriyo gabe bi musu eman eta sugurretik kosk egin biar.

—¿Zer esaten nazu!

—Baña erremeriyua're badet: tori paperezko txorro berdi au, sartu zazu sugurrian eta joan zindezke ezteren bildurrik gabe: izutu egiten da.

—¿Orla?

—Bai; sartu, sartu geyago: ederki daukazu orla.

—¿Eroriko ote zait?

—Ka; gomakin pegatua dago goitik.

—Gauza bat nai nizuke esan sekretuan.

—¿Berriz?

—Lau peseta ematia.

—Beterinariyuak emango dizkizu lau ezik, amalau're berak nai badu.

—¡Bai, e? ¡Arrengana nua! Ariyo eta urrena arte.

—Ariyo eta eskumuñak beterinariyuari.

“Baserritarra” 63, 2-3-1907.

SAGARDOTEGIYAN

(*Gertatua*)

Nola Jaungoikuakin eta iru edo lau santu ontxuenakin beti Pipik ondo iruki nai zuen, pekatuari eta zaldiyen aragiyari bildur geyago ziyon, zezen Salamanquino bati baña.

Ostegun Santu eguna zan eta bere lagun etsayak, jakiñik zer astu-kirten edo eskrupuloso aundiya zan, non bururatu zaye infernutar ayeri, gure Pipi inozentiari ikara aundi bat ematia, bijiliko babarrun guziyak eta patata bat edo beste dantzan jartzeraño.

Esan da egin; eraman dute sagardotegira, kazuela aundi bat izurde (arrai onen aragiya da gorriya, zezen jokatuena bezela) bere piper, patatakin ederki nastya eta... kaxo mutill.

Illun aurrian, pentsatu bezela, non Pipi *tinblietara* joan biarran, zuzen zuzen sartu da sagardotegiyan, eta nola lagun denak alkar artuak zeuden, jarri dira aurrian eta sartzan ikusi dutenian, eltzen diyote bi belarriyatetik eta an daramate aidian.

—¿Zein, Pipi?

—Ez; kazueta izurdiakin; eta batek ala diyo:

—Pipi, ederki ator, mutil, ar zak kutxaria.

—¿Zer da puska luze ori? —diyo kazuelara begira—.

—¿Ori? gizonen besua.

Eta ala diyok Kokok, kutxaria belarriyen atzien jarrita:

—Ja, ja, ja, ja. Lurrian etzatera niak.

—Zertako.

—¡Farra lasayago egiteko! ¡Au konbitia dek, Pipi!

—¿Zein da judu zikin ori?

—Ni —diyo Tupik, abua patatez betiaz.

—¿Ire gonbitia?

—Neria.

—¿Zeren motiboz?

—Katuak iru ume egin dituelako.

—Eta i, Malko, —diyo Pipik arriturik—, oraindik ez dituk zortzi egun alargundu aize-la eta elizen kontra abill i're?

—¡Bai, Pipi, bai! ¡Arrazoia aundiya dek! ¡Nere emazte maitia! ¡nere zoragarriya! ne-re... ¿zer goxua dagon, e? ¡Ura emakumia! Bere denbora guziyan, iru bider bakarrik atzarmarkatu ninduen eta ori neskamia besuetan iruki nuelako. Ni ezin etorri niteke gonbitietara, zergatikan... ¿badakizute gero xaltxa're ederra dagola? ¡Bost illabetian egondu nintzan ezkondua! ¡Arren edukaziyua! Nola Astigarran bertako alaba zan, geroztik ango ikazkiñak, ezin burutik atera zaizkit. ¡Nere emazte maitia! ... ¿patatak ere zer goxuak dau-den, e? ¡eran zagun, eran zagun beste baso bana!

Farra egiten zuen Moña igeltseruak, ikusi dan mozkorrik elegantiena eta andriari sei masalleko eder erregalatzeko salerosuena.

—¡Baña zu, Malko!

—Bai, Pipi, bai; au jatian negar pizka bat egitera, txoku ortara joango naiz.

—Au da aragi faltsifikatua —diyo Kokok kutxaria puntaraiño betiaz.

—¡Zer izan biar dik! suzko banderillen usaya emendik aitzen ziyuat —diyo Pipik sугurrari gora tiriaz.

—Egiya, Pipi, egiya, suzko banderillen te-
jua zeukak.

—Faltsifikatua dala —diyo berriz Kokok—
¿Eztakizute asto esniak ere faltsifikatu egiten
dituztela?

—¿Zerekin, klerarekin?

—Orain jakindu da, eta eztu artu nai iñork
asto-iñuria berak ikusi gabe. Argatikan jaisten
dira sitora, astua ia astua dan ikustera, ero dan
igeltseroren bat.

—Oyek denak gezurrak dira; nik badakit
zer dan. Esnia da, baña ez astuena —diyo Pi-
pik..

—¿Zeñena da bada?

—Katuena.

—Bien, Pipi, —guziyak farrez asi ziran
miau-miau egiñaz.

—Egiya, Pipi; astuena izan bazan, artzen
duten guziyak, ostikalariyak izango ziran.

Ontan garbitu dute beren kazuela, esko-
bakin sukaldia bezela eta ala diyo Kokok:

—Pipi, ¿nai dek jakin zer zan jan deguna?

—Bai esan zak.

—¿Izurdia!

—¿Izurdia?

—¿Ez, mokordua!

—Abotik atera nak.

“Baserritarra” 66, 16-4-1907.

KONTRABANDO BILLA

Aspadiyan jendia ixilik dago kontrabanduen gañian. Lenago ordurik etzan aitzen etzanik, espiritua pasatzen zala kofrietan, urdaya, ardua barriketan, denak berriketan orla ziran, baña gaur, Urkadako mutuak diyonez, erri artan, naiz guardak zelatatu azariyak bezela zuletatik, sasi petik eta arbol gañetik, ez omen da bat kontrabandista eztanik.

Lengo illunabarrian, Etxezabaleko mayorazkua bere emaztiakin errira dijuala, atera zayote sasi tartetik guarda bat, ikusirik emakumea-ri aurrian bultu alako bat, ala diyo:

—¡Alto! ¿Zer daramazu or?

—Oraindik ezta kigu nexka edo mutilla izango dan —diyo senarrak.

—¿Seguru al zaude?

—Seguru nago eztakiala —diyo berriz zerbait boza altxatuaz.

—Konforme naiz, bestela kaxetara juan biarko zuen bestiak bezela.

Oraindik egun asko eztala, gizon bat gelditu dute bi guardak, Larbetako ostatutik edo bentatik atera eta bidian dijuala, esanaz:

—¡Zu! ia or daramazun kontrabandu ori.

—¿Zer kontrabando? diyo geldituaz guarda batek eskua bizkarren gañian jarriyaz.

—¡Al baneza erregalatuko nizuke pozik!

Orduan igarri ziyon mandu arrek, gizaria jak zeramala konkor aundi bat, ziruriyena kalderiñ bat abuez bera.

Orla dabilta Urkadetako guardak, Jaungoikuak berak egiten dituen lanak errespetatzen ez dituztela.

Gabero badira bullak, ojuak, ¡eldu, eldu! ¡ortik, ortik, mutill!, ¡jo, jo!, ¡bota!, ¡tira, tira!, ¡ez, ez!, ¡bai, bai!, ¡alto, alto!, akelarreko sorgintza.

Eta usterik gutxiyenan, ari zera etxian, al dezun modurik onenian, andria joka, edo tabakua pikatzen, edo... arpa jotzen, eta *zas* bat batetan sartuko zaizkizu salan bi arpegi gaiztoko, esanaz:

—Zu, ¿ia abua z bera jartzen zera beriala?

—¿Nola?

—Eltziak txuatzeko jartzen diran bezela.

—¿Zergatik jarri biar det nik abua z bera?

¿Nor agintzen du emen?

—Guk.

—¿Eta zuek zein zerate?

—Gu gera guarda *bolantiak*. ¿Gau txori-yak! ¿Zu, zu, emen txorixo prejituen usaya dago!

—Baliteke; oraindik nola ez diran minutu asko afaldu degula!

—¿Eta deretxuak pagatu al ditu?

—Uste det bayetz; nik denda n erosi det.

—Errejista zagun etxia, ikusteko ia deretxuak pagatu biar duen gauzik billatzen degun.

—¿Baña!...

—Zer baña ta zer maña; zabilta kontuz autoridadiakin. Ni eta ori, gera momentu on-tan alkate ¿badakizu? eta alkati a ezta sekule-tan errebelatzen, ¿aitu dezu?

Ala, eztago erremeryorik, asi biar dezu mutur joka antzara oyekin, edo lajatu biar di-yozu nai duten demoniño egiten.

—¿Armayu ortan zer dago? —diyo batek.

—Or, gantzontzilluak.

—Ia ikusi.

—¿Gantzontzilluak ere deretxua pagatu biar al dute?

—Geren begiyakin ikusi nai degu guziya, zergatik guri etzaigu aizerik ere pasatzen. Datorrela neskamia.

—¿Zertako?

—Artako. Ikusteko ori dan atzo artsaldian arrua bat urdai eta bi dozena odolki pasa zituen mantalpian. Soplua izandu degu.

—Neskatxa, nola agiñeko miñez egondu dan, orain lo dago.

—¿Lo dagola? ¡esnatu! ¿Non dago bere gela?

—Zuk zer jakin biar dezu.

—¿Bere gela non dagon?

—Iñon ez —diyo ojuka nausiyak.

—¿Zer esan dezu? aguro, baña aguro ¡Alkate bati!...

—Ia jantzi dedilla —diyo beste guardak, kantuari makillazo bat tiriaz.

—Eta jantziya badago, erantzi dedilla —diyo aren lagunak biatzakin sugurrak garbitu eta galtzari arraskatuaz.

Guarda nabarmen oyek uste dute sartu litezkeala erozein etxetan eta libre dutela, nai badute, txokolateran sugurra sartia edo baz-

ter guziyak eta oipiak errejistatzia, eta gañera,
berak diyotenez, Urkadetako erriyak, ayek
dauden ezkerro serbiziyan, irabazi omen du
gutxiyenaz euneko bost, arrapatzen ez diran
kontrabanduak kontatu gabe.

“Baserritarra” 68, 11-5-1907.

BERTSOLARIYAK

Ni ez naiz Jaunari graziyak ezer dakitana eta gutxiyago famatua; ordu onian diyot.

Eta ala da; baliyo banu, naiz izan zaldi batek añako burua, esango lirateke eskuak gerrian jarrita:

—¡Arrayenia! ¡Ez dezu gutxi baliyo! ¡Oyek dira, oyek bertsuak ezkribatu dituzunak! ¡Ori buru puska, gizona! ¡Or ez dago serra autsik! ¡Zurekin konparatzeko zer zan Bilintx? ¡zer F. Arrese eta gañerakuak? ¡Urri-karri batzuek besterik ez!

Ala, batzuetan eskerrak ematen diyozkat gure Jaungoikuari eta bestietan alkatari gaitz ortatik libratua, amen.

Baña ezagutzen det bertsolari on bat, minutu bateko sosegurik ez duena, arritua ta txunditua daukan gizon ostra diruriyen batekin. Goizian sartu etxian eta pegatuko zayo sillari, muzkullua' arrokari bezela, eta, bertsolariya mugitzen bada, galdetuko diyo beriala:

—¿Nora zuaz, gizona, orren estu?

—Laja nazazu pakian; gauza biar aundiko batera.

—¿Baña etorriko zera?

—Bai, gizona, bai; bost minutuko lana da.

Eta joaten da presaz, laguna utzirik ezin konturatu dala nora joan ote dan.

Gau batian, jaun au bera ari zan sagardotegiyan bertsolari eder onen bertsuak letzen, eta esan zuelako Santa Klarako isla lau gizonek gaztelu atzetik ekarriya zala, ala diyo batek ukabilla sugurren parian pasiaz:

—Etzenduke ori kanpuan esango.

—¿Zergatik?

—Zergatik geroztik arren arrokak luzatuak diran.

Txokuan nola zeladore bat piper binagretatuak jaten ari zan, ala diyo esku gañekin bi-botiak garbituaz:

—Zaudezte ixilik, bestela piper abek jatian ispeziyuan zerate.

Joan da beriala bertsogillien etxera esatera zer pasa zayon, baña onek, bizkarrian eskua pasiaz, ala diyo :

—Sosega zaitia, gizona, ¿eztakizu lukainkez betia dagola mundua?

—*Es que* badakizu ama maitiago zaitutala.

—Bai, badakit enamoratua zaudela.

—Eztaikit nola ez diyotan abotik sartu...

—¿Zer?

—Santa Klara oso osorik.

Batian, gure bertsolari famatua jarri zanian miñez, an zuen beti bere gelan beste bi edo irurekin, uzten etziyola lo pixka bat egiten; batek pantorrillak igortzitzeko tella puska batekin, bestiak arkume larru batekin tapatzeko, eta bestia bi okalonduak buruki gañian jarri eta mundu guzitik “Mando euliyen bertsuak” letu biar ziyozkala, ezpañak belarriyan jarrita. Ontan etorri zan sendakiña eta an bota zituen gelatik esanaz :

—Zuek pestia baño txarraguak zerate: kanpora emendik.

—Nik ainbeste nai diyot, ez naiz garbitzen miñez daguez ezkerro —diyo batek.

—Gu gera, orren buru aundiyaz arriturik gaudenak —diyo bestiak.

—Bueno; beste batian arrituko zerate.

—¿Beste batian non? Guk emen bertan
nai degu arritu.

Irurak sartu dira sukaldian, katua ostiko
juaz, neskaxari zirri egiñaz, ardua eran eta ga
lletak janaz; ala diyo batek:

—¿Ez al dago galleta oberik?

—¿Zer dute?

—Au zikinkeri bat da; abek ez dira galle
tak, abek dira ogi azalak.

Bestela're onlako *lateruak* bildur geyago
ematen dute baztangak baño.

Ezagutu nuen beste bertsolari bat, beti
amorratzen bizi zana; orlako enplastuak etxe
tik bota eziñik, bein baño geyagotan neska
txen erroperuan edo kofrian gordetzen zala.

—¿Etxian al dago nausiya? —diyo batek.

—Ateria da kalera.

—Nola presik ez detan, eskalletan eseri
eta itxogongo diyot.

Baña nausiya nola erropen atzian zeguen
gordia eta juan bear zuen kalera sastre bati ma
salleko bi ematera *poeta* deitu ziyolako, *tri
tra* zabaldu du atia eta ala diyo eskallera buru
kuari:

—Zu, barkatu; gaur nola nere andrien
eguna dan, sastre bat billatu biar det.

—Ez, gizona, ez; ara ni emen; egin zazu
nerekin nai dezuna.

- Eta gañera kallua're moztu biar det.
 —Ez, ori ez; nik moztuko dizut... biatza'
 re nai badezu.
 —Baña...
 —Guazen sukaldera; nere onore guziya or
 dago.

Eta bata zala edo bestia zala, biartu zan bazkaltzera konbidatzia eta denbora guziyan amorratzen egondu zan nausiya, porkeri arrek noiz burua beste aldera jiratuko zuen, andriari kariño goxo bat egiteko.

“Baserritarra” 70, 6-8-1907.

KALIAN

—Egun on, andre Klara; ¿zer darama or, legatza?

—¡Bai zera, enplastua! ¡Iya erotu naiz, andre Karmen!

—¿Zer du, agiñeko miña?

—Andre Paula joan da kofria istera eta ¿burua etzayo bada gelditu barrenen? Añ gutxi ikusten du, ez daki nolako ikara eman digun.

—Jesus milla bider.

—Graziyak beko zapatagilliarri, atera diyo-la batere mallatu gabe.

—¿Etzitzayon ortzik eroriko?

—¡Nola erori, ez badu!

—Orrengatik diyot bada, etzitzayola eroriko. ¿Eta aibeza, bart komeriyen omen zan?

—Nere santu artuari eskatu diyot, ni ez eramateko berriz teatro komerira. ¡Kartzelan sartu ez nindutenian!

—¡Zer esaten dit!

—Aitu beza, Andre Karmen, aitu beza! Beorrek badaki autua akabatzen nola kurtiña aundi bat jatxitzen duten.

—Bai.

—Bada ura jatxi eta laister, gure bian zeuden iru edo lau kaballero, ez bat eta ez bi, non jarri diran neri begira, bastoyen kirtena erakutsiyaz eta esanaz:

—“Ori da, bai, ori; *esa bruja, esa.*

“Eta beste kaballero moduko bat, burutik txiriyuan odola alkondoran barrena dariyola.

—¡Jesus, Aita ta Semia!

—Batek neri begira antiojuak kopetian jarri ta ala ziyon ojuka:

—“Ori da ori, arri koskorra tiratu duena.
¡A la cárcel!

—¡Arri koskorra, andre Klara?

—¡Ayen iskanbillak! Jende guziya nabarmendu zan beriala eta arrantzale batek ala diyo aldamenetik:

“—Lupiyak izutzen asiko zan —eta gero ala diyo berriz farrez, ots aundiko aize bat botiaz:

“—Etxekoandre, aguro ibildu, galerna gañian degu ta.

—¡Pentsa beza zer lotsa!

—¡Berriz esan beza!

—An etorri ziran iru zeladore eta beste bi ezpatekin, uste det gerrako ontzikuak zirala, eta ala diyo batek:

—“¿Beorri al da arriya tira ta beko kaballeruari buruan zulua egin diyona?

“—¿Ni?

“—Beorrek egin du, arriya tira ta eskua gorde.

“—Aita San Antoniyo jartzen det testigu... —eta ala diyo arrantzaliak:

“—Laja bezayo San Antoniyo, lotara joana da ta.

“—Bat dala edo beste dala, arriya emendik tiria da —diyo zeladore batek, bibotiari tiriaz pesetako erraztun *dublezkua* erakustiatik.

—¿Baña, andre Klara, beorri etzan izango? —diyo andre Karmenek, arkakusua disimuluan arrapatuaz.

—¡Pentzatzia're ori!

“Öntan altxa da nere aldamenian zeguen gizon bat eta ala diyo zeladore lepuan iru gulinxo dituen bati :

“—Inork eztu kulpik, zergatik inork eztu arririk tiratu.

“—¿Zer esan dezu? —diyo gerrako ontziko jeneralak sablia aterata.

“—Garbitzera nuala pañueluakin, neri erori zait...

“—¿Zer! —diyote denak batian.

“—¿Begiya!

“—¿Eta begiyakin jo ta gizona odoletan laja dezu? Gezurra da ori, begiyan igartzen dizut.

“—Ez, jauna, egiya da, zergatik begiyan kristalezkoa, bestela ikusi nai duenak bere begi zulua.

“—Rekontra, ta egiya da; arratoi zulua diruri.

“—Egingo baliateke mesere billatzia.

“Onla jatxi ziran esan bezela eta billatu dute kristalezko begiyan txoko batian tristiago, baziruriyen alkatien aurrera eraman biar zutela.

“Jende guziya farrez zeguela ala diyo arrantzaliak :

“—Kayeko enpleatuen begiyan da ori.

“—¿Zergatik?

—Ikusten ez duelako.

—Orra zer lotsa, andre Karmen.

—¿Eta zer egin ziyoten gero begiyari?

—Jabiari entregatu eta gizarajuak presaka jartzeko zoriyan, okerreko aldera sartu zuen begi zuluana.

—¿Okerreko aldera?

—Bai; begiya barrena eta txuriya kanpora; uxuen arrautza ziruriyen jarri zuela. Ez neukan gogo aundirik baña arri begira farra egiten nuen.

—Sikiera orla pasa zanian...

—Ala da, andre Karmen. Presa det eta banna.

—Neronek ere presa det; ariyo, ariyo, andre Klara.

—Bijua ondo, andre Karmen.

“Baserritarra” 72, 6-7-1907.

UDARAN

Uste det aurten jendia keja dala, esanaz kanpotar gutxi datorrela, baña guk, genezagukenak, ikusten ditugu arpegi berri asko eta guziyak diferentiak: atzo bertan, katu arrai eme bat erosten ari naizela arrandeyan, arkitu nintzan birekin, eta ala diyo batek bizkarrian juaz eta sugurrera begiratuaz:

—Nik uste det, nonbait ikusi zaitutala zu.

—¿Ni? Baliteke.

—¿Zuk etzenduen pasiatzen juan dan udan, emakume itxusi baztangak zulatu batekin?

—Ez naiz gogoratzen.

—¿Iñigo kalia bizi etzan?

—¿Zein?

—¿Zuk ez al dezu lengusu bat filarmonika jotzen duena?

—Baliteke, zergatik iñor ez dago libre desgazi batetik, baña ez naiz konturatzen.

—Bada seguru nago nonbait ikusi zaitutak... ¡A, bai, zerian, bilubarrian!

—Alaxen da —esan niyon ia pakian uzte ziran.

—¡Esaten nuen nik! ¡Kontxe, kontxe!...
¿Ba al dezu zigarro bat? Paperezkua nayago det.

—Tori.

—¿Onak izango dira, e?

—Bai; atzo bati bi tximitxa billatu niyozkan, baña gusto ona dute.

—Zuk eztakizu ondo, zenbat poztutzen naizen, onla ezagun bat arkitzian.

—¿Eta ni? (¿Baña zein arraye degu au?)

—Zergatik esateko, guk emen ez degu iñor ezagutzen. ¿Ikusten al dezu au?

—¿Zein?

—Au; nere anaya da.

—Urten askuan.

—¿Ba al dakizu baldatua dagola?

—¿Nik?

—Bai, gizona; astiarte iñauteriz ezkeru. Oso zelebria nola dan, maskaratu zan Andaluziyako kontrabandisten modura, bere laguna-

ri broma bat emateko ustian, ¿eta badakizu zer egin ziyoten?

—¿Trabukua ostu?

—¡Ka! Migel Tupa zalakuan, artu eta eskalletan bera bota.

—Dantzatu zuten ederki.

—Onera ekarri det, zergatik esan dirate itxas golpiak onak dirala.

—Eskalletakuak baña obiak.

—Gastu aundiya degu baña ¿zer egingo degu?

—Pagatu.

—Lenago sebuen bañuak artzen zituen eta bakarrik logratu zuen larrua leguntzia.

—¿Besterik ez?

—Eta gau geyenetan irriztara arrekin oye-tik erortzia.

Orla etortzen dira onera kanpotar asko, lenbizi billatzen dutenari kontatuaz beren kontu pasiak, pasatzen ari diranak eta pasatzeko daudenak.

—Ni etorri naiz uda pasatzera —zizon Errenteiko emakume lori, orain Zaragozan bi-zi dan batek—, ia logratzen detan nere alaba tristi oni aztu azitzia zorigaiztoko amoriyo etsi-mendu ori.

“Pentsa zazu, enamoratu zan karabinerue-tako ofiziale batengana, eta gero non jakindu

degun Geronan ezkondua zeguela mula batekin; da esatia, emakume basto kriantzik gabe ko batekin. Atzo're ostatuan ikusi zueneko ros bat soperen onduan, beriala asi zan tristia karraxika eta arpegi guziya atzamarkatzen.

—Nik uste det, bañuak baña asto naturalen esniak ederkiyago artuko dutela.

—Artu ditu likenekin nastuta, baña beti karabinerua dauka sugurren puntan.

—Neke aundiya dauka tristiak.

—Orra bai eta soziedadeko dantza-festetan geyago konfiyaten naiz.

—Egiya; jendia prestatzen asiya da. ¿Ikusi al dezu On Eleuteriok, Ama Birjiña egunian, meza nausira eraman biar duen lebita?

—¿Zein da, alkatia?

—¡Ka! Patatero bat. Pañu beltza du, eta eudiyak jotzian, illia luzatzen zayona.

—Afaitatu.

—Izugarri famatzen dute ikusi duten guziyak.

—¿Zuk ikusi al dezu?

—Nik ez det orlako suerterik. Erozein lekutan ezta besterik aitzen, zezenak, musika eta On Eleuterioren lebita.

—Antzara jokuak, lobuak, ogi gogorra pobriari partitzia eta orla.

—¿Eta lebita berriya estrañatzera dijuan ori, elegantia izango da, e?

—*Me parece.* Atzo're, ogi gañian bakallu errien puska duela, Korriopera joan zan errejidorerik prinzipalenaekin baso bi sagardo era-tera. Pentsa zazu, Cardenasen ogei urte pasia da.

—¿Non?

—Cardenasen.

—¡A bai! Salamancatik bertan.

—Eta sastre Guraitzetak egiña: erriyan eta kanpua dan onena.

Erriyan ezta izango eztakiyenik On Eleuteriok estrañatu biar duen lebita Ama Birjiña egunian.

—Alaba ta ni balkoira joango gera orixe ikustera.

—Eta ni, bulebarreko arbolera igoko naiz zuengandik itzul egiteko.

“Baserritarra” 73, 20-7-1907.

¡ARRAYETUAK!

I

¡Gogor, gogor!

Ikusirik sagasti bikañak sagarren kargakin izarditan, ler egin nayan, eta aditurik aren zumo gozua bere betiko ur gusto ederrakin eran nai duenak pagatu biarko duela larrutik, askoren odolak goituak dabilta, buruko txapela baña gorago.

Lengo batian, Ogei-ta-bat upeletako sagardotegiyen, ala zion Katu arrantzaliak, ogi ganeke perloi erriari ortza sartuaz:

—Jaunak, ni sagarduen *esklabua* naiz Jaunari graziyak, baña or diyoten bezela, nere balsamu au ez badute merkatzen... —ukabillez upela juaz eta perloi erria Kille mainguari ar-

pegira tiriaz, ala diyo:— Lesakan egin zan Bergarako komeniyua baña oroigarriyago izango da nere mengantza.

—¿Zer egin biek, Katu? —diyo batek—, ¿ire burua upelera bota?

—Orain... beatzigarrena eran, baña gero...

—Amargarrena ¿ala? ¡Biba Katu!

—Diputaziyo prinzipalak ¿zertako dere-txuak ateratu ditu, basuak txikitzeke eta pre-ziyuak aunditzeke? ¿Badakik zer merezi duen?

—Anarkista bat oipian sartzia.

—Basua eskatu eta kopa eman; orla egiten dizkitek etxe berriyak.

—Eta ik galtza zarrak.

—Ojala eztulka astian ezkerreko begiya eroriko balitzayoke oso osorik. ¡Arraperos!

—Ori ez dik egingo datorren ostegunian.

—¿Zer da bada?

—Azken juiziyoko eguna.

—¿Zeñek esan du?

—Txopiñ amugilliak.

—Begira akiyok, ez badute merkatzen, makil aundi batekin ibilliko nak.

—Makillak ez dik indarrrik justiziyan.

—Bai ordian bizkar gañian.

—Egiya, Katu: aurten arbol makalak, ari-tzak eta bulebarrekuak sagar panpandojak ematen dizkitek.

—Sagardo tratalariyak ¿zein dira, nai duten preziyua jartzeko neri esan gabe? ¡Noizko dira bonbak!

—Ori bonberuak esango dik.

—Guk egingo degu goguak ematen diguna, ez ayek.

Eta alako errabiya artu zuen, atera zan sagardorik pagatu gabe.

Eskalletan estropoz egin du beste batekin eta “barkatu” esan biarrian, gutxik egin zuen nola etziyon eman begi ondoko bat.

—¿Aizak, Txerri? Tabernariya nola triste gelditu dan, bota akuyok bertso bat alegratu dedin.

—Ara beste enplastua. ¿Nai al dezu dantzaz astia?

—Tira, Txerri, tenta zak Manuelatxo.

—(*Kantari*)

Estropozka igo da
eskalletan Katu,
amar baso debalde
dituenak sartu;
txantxaz ere ez dizu
ardit bat pagatu,
orreatikan diyot
nai banazu aitu,
itxasoko katuak
amolatu zaitu.

—Ja, ja, ja, ja, bien, Txerri.

—Bestia, bestia. ¿Ikusten dek? Ora Manuelatxo're larrez jarri.

—(*Kantari*)

Soseguz billatzeko
bizi dan etxia,
atayan jarri biar
zeniyon kotxia;
lastima da bidian
nekiak lertzia,
eta bere meriyo
alperrik galtzia
ipur gañian jarri
liteken partxia.

—Ja, ja, ja. Bien, Txerri, bien ...

—Tori, orra gure kontua eta gero arte.

—Baso batena gutxiyago ematen dirazu.

—Ori zuretzat.

II

Ontan kale guziya artuaz, allegatu da Katu kayeko muturrera eta arkitu du mutil kozkor bat, barrikatxo bat bizkarrian duela; begiratu diyo anketara, esanaz:

—¿Bai al dakik ni zein naizen?

—¿Gizon bat!

—Ni ez nak gizona, ni nak zeladoria arrantzale jantziyan.

—¿Bibote gabe?

—Kofrian laja diat, katuak ez arrapatzeko.

¿Nora ua barrika orrekin?

—Ur billa.

—¿Sagardotegira eramateko?

—Ez, jauna, bapore Mamelenarako.

—¿Anka oyek iriak al dira?

—Bai, jauna.

—Ez gero neri gezurrik esan; oyek ez dituk anakak, oyek dituk arrai zabalak. ¿Nongua aiz?

—Emengua.

—¿Orren gaztia ta emengua? Ka ¡mustrak, muestrak aguro!

—Ez det nik muestrik: ikusi patrikerak nai baditu.

—¿Bai al dakik fandangua dantzatzen?

—Bai, jauna.

—Barrik'ori bota zak putzura eta bazter ontan asi ari beriala.

—(Barrika lurrian laja ta) Tira, kanta.

—(Kantari) Lara lara lararararan lara lara... ezkerreko anka ori altxa tellaturaño... lararen... besu oyek zabal zabal, orla; aufa lara larara,

buelta, jira, salto, bien mutil, ederki zio. Datorren urtian alkate. ¿Nekatu al aiz?

—Ez.

—Ni're ez. Orain beste muestra bat biar diagu. ¿Bai al dakik kantari?

—Dantzan bezela.

—¿Bai al dakik kantatzen "Astuaren mixalio"?

—"Arribando; bitoria bitoria txibiribiri konkon konkon"...

—Bueno bueno ¡ooooo! Sobresaliente de primera. Orain ire barrikakin ua, baña beirok gero urik eramaten badek sagardotegira.

Fiesta bukatzeko, etzan gaizki egongo zeladore batek eldu Katuri eta txakur lekura eramatia eta bertan irukitzia, alik eta buruz ikasi arte, oraindaño iskribatu dituen euskerazko bertso guziyak, Kayetano S. Yrurek (1).

"Baserritarra" 74, 3-8-1907.

(1) Kayetano Sanchez Irure, garai artako jaun bat, bertsoak jartzeko etorri ugarikoa.

TRENIAN

—¡Au geyegiya da, rekontra! —zìyon kotxien bazterrian zetorren gizon arpegi gaiztoko batek, begiratu txar bat egiñaz mutil koskor baten amari.

Au zan señoira moduko bat, bere azanayo koloreko mutillakin sartu zana. Pardel eta beste gauzak antolatu ondorian, diyo bati:

—¿Egingo al dezu mesere, anka oyek biltzia edo beste nonbait jartzia?

—¡Non da moztutzen ez ditudan! —diyo gizonak.

Mutilla asi da marruaz, uzten etziyotelako etzaten luze luze lurrian, eta bazterrekuak begi ziarka begiratuaz ala zìyon oso sutua:

—Mutil petral onekin uste det erori zai-
gula loteriya. ¡Au suerte zikiña!

—Josetxo —diyo amak—. Donostira alle-
gatzian, erosiko dizut zaldi bat aita añakua,
pelota eta pistola, geldi egoten bazera, ¿aitu,
nere biyotza?

Mutillak anak jarririk bazterrekuen ga-
ñian, nai zuen onen pardela arrapatu.

—¡E, mukitsu —diyo ojuka—, kontu gero
nerekin bestela...

—Laja zayozu —diyo amak—. ¿Ez dezu
ikusten eztakiyela zer egiten duen?

—Ikasi dezala arraye bi t'erdirekin —diyo
ziar begiratuaz amari.

Bazterreko gizon au zan itxusiya, oso je-
niyo gaiztokua eta presiliyuetan buru egiten
zuen. Sufritzen zuen sabeletik, eta, oñaziak
ematian, preso zeguen erozein anketatik artu
eta paretari jo azitzen ziyona zan, ajola aundi
gabe. Donostiyan itxasoko bañuak artu eta zi-
ñuan Santoñara.

—Seguru —diyo batek—, Donostiyako
urak grazi ori dute, indarrrik ez duenari eman
eta duenari atera.

—Jan ederki egiten du, baña badirudi le-
gortua dagola. Sendakiñak diyo, nola oso ja-
kinduri aundikua dan, orren meriyo diruriyela
bi kañoiko eskopeta... ¿Ezta ala, Josetxo?

Erantzun biarrian eman du salto bat, non joan dan bazterrekuen tripa gañera, eta onek lepezamarretik elduta, nola nai zuen zapaldu leyuari jota, gelditu azi du bere aldamenekuak, esanaz :

—¿Zer zuaz egitera? ¡Inozente bat da!

—Tentatzen banau, txistua baña azkarra-
go da leyotik kanpora tiñosu ori.

—¡Iltzalle gaiztua! —diyo amak iya atza-
markatuaz—. ¿Jo al zaitu?

—¿Ni? ¿Arpa naizela uste al dezu jotze-
ko?

—Ori baña geyago badakit nik eramaten.

—Ori're obe zenduen eraman, ez ekarri.

Ontan allegatu da gau beltza, eta nola Jo-
setxok ezin lorik egin zuen, ala ziyon amak :

—Tira, Josetxo, jarri zazu burua jaun orren
iztar gañian, zergatik txit ona dirudi.

¡Ura begiratua egiten ziyon bazterrekuak,
arregatik ziyolakuan!

Mutilla igo da eseri leku gañera eta beso-
-tirantiari eldu ta asi da ostikoka.

—¡Itoko baitzake urdi ori! —diyo ixil ixi-
lik bazterrekuak.

Ama ixiltzen etzan bere mutil petrala fa-
matu eziñik.

—Zernai gauza ikasten du. Zu, Josetxo, kanta zayozu jaun aberi “Urra Papito” (1) eta erosiko dizut porrutxinela.

—Eztet nai, eztet nai eta eztet nai —diyo ojuka, bere burua jaun baten gañera botiaz eta ankekin bazterrekua sabelian joaz. Gero sartu da eseri lekuen azpiyan eta asi da *miau miau*, ama, *bule, bule*, ama.

—¡Ikusten dezute! —diyo amak—; alkatia baña geyago daki; ¡nola ezta legortuko orla gixagaixua!

Azaldu zanian alki petik, arpegi guziya zeukan autsez betia eta sugurra beztua.

—¡Nere seme ederra! —diyo amak—; atoz arpegiya garbitzera. ¡Non jarri zera orla?

Ateratu du botilla bat urekin, eta garbitzen asi danian, ala diyo bazterrekuak:

—Ori da falta zana, gobara egitia... ¡Noizko da baztanga beltza!...

Ama garbiketan ari zan, bere etxian beze-la; mutilla berriz ojuka, ostikoka eta kosk egin nayan gelditzen etzan, eta joan nai zuen gordetzera bazterrekuen anka artera, eta onek ikusirik ala ziyon amorratzen:

—¡Arrimatzen baaiz, eztakak jornada txarra!

(1) Denbora bateko euskal kanta txit ezaguna.

Amak bukatu zuenian garbitzez, artu zuen palangana bere urakin eta *plast*, bota zuen bazterrekuen leyotik.

—¡Zer arraye ari zera! —diyo txutik jarrita ojuka ernegatzen.

Ur zikin guziya non kanpora joango zan, erori zitzayon gañera, zergatik gertatu zan le-yua itxiya egotia.

“Baserritarra” 75, 17-8-1907

BETI BEZELA

Udara partian, Bulebarrian, Kontxako aurrarian eta beste leku askotan, xaguxarrak bezela illubanar aldera ateratu eta eseriko dira zomorro batzuek arrizko alkiyetan, sillik ez pagatziatik, beren guraize aundi zorrotzakin, San Migeli kandela bat eta etsayari beste bat jartzen diyotenak.

—¡Andre Joakina! ¡gaur berandu dabil!

—Badaki ez detala denborik ezertako arrenkin.

—¿Zeñekin?

—¡Txulo, emakumia, Txulo! ¿Eztaki?

—¿Txakurra?

—Bai, andria; egunero atera biar det, bere txokolatía bizkotxo birekin artzen dituenian,

zergatik nola motel xamar dabillen, eztu besterik egiten, usai oya-zurari eta usai sillari eta aur bat bezela kejatu, konparaziyo txarra dalarik.

—¡Txulo tristia!

—Eztu txakur bat ikusi, arrek baña biyotz obia duenik. ¿Gaur ez al dira etorri Pumadae-nekuak?

—¡Bai zera! ¿Ez al daki zer pasatzen dan?

—Ez, andria.

—Bada alaba zarrena, euli illa diruriyen arrek, majua egin du *tra tra* tronpeta jotzen duen sugur zabal bat.

—¿Zer esaten dit?

—¿Badaki nola teatrora joaten diran?

—Bai; berak jakingo dute nola, baña badakit beti an dirala.

—Bada ango musikero arrek itz egin ziyon amoriyo kontu eta neskak, erredoblantia jotzen duen erdi itxu batekin, abisatu ziyon bayetz eta bayetz.

—¡Emakumia, txunditua uzten nau! ¿Eta amak ez al zuen ezer igarri?

—Badaki arren ama afanosa bat dala: patiatzera ateratu, teatrora eramán eta marmazarako ematen bazayo bere moduko bat, ez da oroitzen ez alabaz eta ez etxeko potajiaz.

—Gogoratzen da bada guraiziakin lana egitia.

—¿Zein dira or datozen oyek?

—¿Ez al ditu ezagutzen? ¡Baratxurienekuak, eta begira beza, sarjentuakin datoz:

—Lotsik ez eta biarrik ez.

—¡Zer gaizki ematen diyon mantilla orrek!

—Nola ez diyo emango gaizki. ¿Eztu ikusten arpegi aundi orrek sopera diruriyela?

—¿Soñeku ori sedazkua al da?

—¡Bai zera! lanilla, eta merkiena.

—¡Zer itxura txarra daukan alaba gaztiak!

—Nola ezta egongo galdua, bere nobiyo gaya ikusi badu mirabe eder batekin izketan eta farrez.

—¿Eta ez diyo ezer esan?

—Langosta bat zeraman eskuan eta berarekin tiratu ziyon arpegira.

—¡Atrebida gaiztua!

—¿Eztaki taraska aundi bat dala?

—Nobiyuak ere gaizki egon biar du; atzo esan ziran persona batek, gibelen erdiya eta geyago falta zitzayola.

—¿Eta arnasia nola artzen du?

—¡Bijua jakitera!

—Oyen aita bai, ura zan gizon on bat.

—Bai, baña zikin xamarra.

—Eta itxusiya.

—Eta jeniyo gogorrekua, ona zalarik.

—Eta arren alargunak ¿ez al du uste gizonak utzi baña geyago gastatzen duela?

—Oraindik azalduko da zerbait.

—Ederki merezitua izango du.

—¿Etzuten gañera esaten gizona gosiak ilzuela?

—Ariyo, ariyo; San Bizentera nua ia sermoira allegatzen naizen.

—¿Zenek du?

—Aita Don Fakundok. ¿Nai du etorri?

—¿Ez balitz ango murmuraziyuagatik! Ikusten badu Kandelagillietako alaba, begiratu bezayo begiyetara; nik uste det pintatu egiten dituela.

—¿Bai? ¡Aguro jakingo degu. Ariyo, ariyo.

—Ariyo; bijua ondo.

“Baserritarra” 77, 14-9-1907.

EROSTUNA

—¿Eztala dirurik e? ¡Ez, izan gabe! Jendia geruago ta ederkiyako jazten da; teatruak beti tontorka, zezenetara alkarren gainka, klase eta tamañu guzietakuak eta denak diferentiak. Suskriziyo bat irikitzen bada, paperian ezin kabitu ala diru.

Bati ala aitzen niyon esaten lengo egunian.

—¿Badakizu gero, jendiari ibiltzen iya aztu zayola?

—¡Nola ez, denak tranbian badabiltza?

Bai, jauna, bai; dirua badala ezin ukatu. Noiz nai ikusten dira sagardotegiyetan, baso bi sagardo pagatzeko 25 pesetako billetiak ateratzen. Atzo bertan *golfo* bat ikusten nuen, duro bat kanbiyatzten bost zentimoren txufak pagatzeko.

Orain falta dana jakitia, durua ona zan edo ez.

Zergatik badira duruak, *karton-piedra*-kin egiñak, berunezkuak eta perkalezko platiatuak.

Tristia izan biar du, gizon bat denda batera joatia duro faltsuakin.

Dendariyak begiratuko diyo far-antzan; gero botako du mostradore gañera eta esango diyo pikardiz bezela:

—Orrek eztu ezertarako baliyo.

—¿Nola? —erantzuten diyo jabiak, kolo-riak mudaturik.

Iru edo lau jira emango diyozka berriz biatz tartian eta esango diyo:

—Emen txit gaitza da ori pasatzen ¿aitu dezu?, zergatik diru asko manejatzen oituak gaude eta gañera...

—¿Gañera zer?

—Emen ez dala tontorik. Zuaz aurreko es-tanku ortara; andria erdi itxu alakua da eta baliteke pasatzia, baña emen Sevillakuak ere ezagutzen ditugu ikusi gabe.

—¿Nola!

—Usayian.

Emakume bat, txestua buruan eta arrai usai ederra botatzen duela, sartu da denda batian, esanaz:

—Egun on.

—Ongi etorri —diyo dendariyak.

—¿Bai al dakate korbatik?

—¿Bai *por cierto!* ¿Zeñentzat nai zuen, kaballeruentzat?

—Ez, andria; San Juan Pasaiko musikero batentzat.

—¿Ona izango da, e?

—Bai, andria; kornetiñen bariazuyuak bere anayak jotzen ditu, baña etxe batian bizi dira.

—Ederki, ederki. ¿Korbata modakua naitu du?

—Oriya pintakin.

—¿Muellia non nai du, atzian edo aurrian?

—Bera nola Bonantza (1) atzian bizi dan, jarri bezayo aurrian eta gustatzen ez bazayo, beste aldera jira derilla.

—¿Lazuakin?

—Orixe bai ez ditala esan; bekar lazorik gabe.

—¿Orduan jakingo du berak lazua egiten?

—Nik uste det mariñel-korapillua egiten dakiyenak, jakingo duela lazua zer dan. Zintak ere jartzen badaki.

—¿Zeri?

—Alparjetari.

(1) San Juan Pasaiko Santo Kristoren ermita.

—¿Zer prezিয়otakua nai du?

—Begira beza; ni etorri naiz korbata bat eroatera; esan beza zer baliyo duen ta kito.

—Zu, Txori; atera zaizkazu emakume oni lazo gabeko korbatak.

Dendariyari korbata baten tratua gutxi iruriturik, deitu diyo mutill koxkor arratoi txakurren itxura bati. Iriki du kartoizko kaja bat eta asi zayo izketan kotorra bat egiñik:

—Ara emen korbatak, arkitu litezken ederrrenak; *muelle doblia amerikanua*.

—Zure antza badute korbata oyek.

—¿Zer dute?

—Itxusiyak.

—¿Itxusiyak abek? Onlako korbata gutxi erosi du beorren denboran.

—Ala da, gutxi edo baterez. Denda ontan sartu naizen arte, ez nekiyen korbatak zer ziran.

—Eztet orrenbeste esan nai.

—¡Obe're badezu! ¿Zuk zein dirala uste dezu San Juantarrak? Azkeneko arrantzalia're, jakin dezazun, bere korbatekin joango da arrantzara; aztuko zaizka kordelak eramatia, baña bere korbata ederra an eramango du lepuan dotore jarriya.

—Bueno, bueno; ez asarretu.

—Ikusi bazenduen Poli txikiren korbata *arrai gorri* bat erdiyan duela, itxutu egingo ziran.

—Alegratzen naiz orduan ez ikusiya; baña orrengatik, ez dira korbata abek itxusiyak, esan duen bezela.

—Geran, geran. ¿Zenbat baliyo du onek?

—Azkena amalau errial.

—Amabiyán ondo dago.

—Geyago pagatu det nik.

—¿Zeñek, ik?

—Esan nai det, etxe kuak.

—¿Esan zak bada! ¿Eramango det amabiyán?

—¿Ez al du geyago eman nai?

—¿Nai al dek ematia amalau errialak eta gañera korbata?

Etxeko andriak egiten diyo sugurrakin seña bat, esanaz emateko.

—Tira, tira, eraman beza; baña jakin biar du, atzo saldu niyozkala onen igualak launa peseta, amairu, Don Gaspar jaunari.

—Alafedia, ez dauka jaun orrek aurten iltzeko asmo aundirik.

—Ikusi balu korbatari begira, zer farrak egin zituen. ¿Non nai du jartzia, txestuan?

—Ez; kolkuan eramango det.

—Egiya; orla etzayo katarratuko.

—¡Auxen da tximu graziosua! Ariyo,
ariyo.

—Nai duen arte.

“Baserritarra” 78, 28-9-1907.

KARTZELAN

Oraindik egun asko eztala, kayeko muturrian alkatiari aiziak txapela eramane ziyolako urera, Miki arrantzalia sartu zuten preso, deitu zuelako "Biba aizia" maria gora zijuala.

Urrengo artsaldian joan gera kartzelara gure Miki ikustera, eta izketa bat egin ondorian, ala diyo abopian :

—Or dagon gizon beltz ori da "Ijito Bizar-zikin"; goazen ia zer diyon.

—¿Baña kosk egiten al du?

—Ka; ogia gogorra bezin ona da...

—¿Beraz zu zera Bizar-zikin? —diyo batek.

—Bai, jauna; ezkongaya eta atzapar garbiyetako umia.

—¿Noiz jarri zizuten izena Bizar-zikin?

—Ume umia nitzala.

—¿Zu al zera ijito Zarpa il zenduena?

—Serbitzeko.

—Ez, ez; eskarrik asko... ¿Eta nola il zenduen?

—¿Nola? Ara, eldu onla eta...

—¿Gizona! ¿Zaude geldirik! Esan nai nuen zergatik il zenduen.

—Oraintxen bezela nola zer egiñik ez neukan, il nuen denbora pasa onla...

—¿Ez arrimatzeko! Or ederki zaude. ¿Emendik ateratzian, bai al dezu iñor iltzeko asmorik?

—Banuen asmua Goiko-errotako mutiko bat iltzeko, baña nola oso argala dagon eta beti grano berdez betia, laja nuen uda azkenerrako.

—¿Ederki egin zenduen! Laja zaitza bizi derilla.

—Beok eskatzen nauten kasuan, logratua dago.

—Esker milla. ¿Egingo al dezu mesere ortzak erakustia?

—Bai, bai; ara emen.

—¿Letagiña ez daukazu kolokan?

—Koñatakin izandu nuen asarre aldi bat eta ordu ezkerro daukat orla.

—¿Eta nik kontatuko baniyoke mundu

guziyari eta gure goiko sastriari, gizon gaizto bat zerala?

—¡Ojala bada! Ori asko gustatzen zait.

—Emendik ateratzian ¿il naiko dezu besteren bat?

—Bai, jauna.

—¿Emango al dirazu aditzera ogei ta lau orduz lenagotik?

—Egon bedi soseguan; ez diyot faltatuko.

—¿Zure bestela laguna, ez al dago emen?

—Beko salan dago; orain kallua moztutzen ariko da.

—¿Ondo lo egingo du?

—Bai; amaikak aldera asten da eztulka; gero, kantatzen du Misereria sugurrakin lurrrian eserita eta gero gelditzen da lo, oipian burua duela.

—¿Ez al dezu beste ezer esateko?

—Bai, jauna; sutzen naizenian orain bezela, gizona anketatik artu eta paretari jo azitzen diyot. ¡Ara nola!

—¡Eeeeeee!

Graziyak atia arrapatu genduela, bestela, egiten du gurekin arrautzik gabeko tortilla (1).

“Baserritarra” 78, 28-9-1907.

(1) Ipui onen bukaeran ez da egillearen izenik ageri, baña ezagun du besteen anaya dana.

JOLASA

—¡Arrayenia! ¿Badakizu gero emen etxiak egiten asi orduko, bukatzen dirala? —ziyon kanpotar gizon sugur zanpatu batek argin nau-si bati.

—Ala da; pobrien otordua bezela: jaten asi baña len akabatua.

—Emen ez dezute eserita lana egiten.

—¿Ikusten dezu aurreko etxe eder ori? Bada illabete eta amar egunian egiña da; ja-biak, bi lengusuk, koñaduak eta sulla betetzal-liak. Onek ekartzen zuen ura eta ladrilluak paperian bilduta.

—¡Gizona! Txokolatia bezela.

—Emen, paperian pintatu baña azkarrago egiten dira bigarren bizitzaraño.

—¿Eta andik gora?

—Esan liteke beren modu altxatzen dirala.

—¿Erriyan bertarako izango dira?

—Esan dizutan ori Tolosarako saldua da.

—¿Zeñi?

—Komandante Marinari.

—¿Eta nola bigaldu?

—Errez; kofria bezela itxita.

—¿Gizona, gizona!

—Egiten ari geran etxe au aspaldiyan akabatua zan, ez izatera Juezen txakurra.

—¿Txakurrengatik?

—Bai, jauna, bai. Goizero etorriko zan; atzeko anka altxatu eta, erremeriyo gabe, arri-rik fiñena busti eta gero alde egin. Baña batian ¿zer egiten du nere lagunak? Tira diyo arri koskor aundi bat eta non jo ta iya il zuen flauta jotzen ari zan apaiz gazte bat mazti orren azpiyan. Oso suerte txarrekuak gera.

Geroztik lanketa guziya gelditua daukagu.

—¿Saldua al zenekazuten?

—Mejikura dijuan amerikano bati.

—¿Eta arrek zertako zuen?

—Zertako izango zuen? Mejikura eramateko noski.

—Gure erriyan, ez dira etxiak orla egiten.

—¿Tellatutik asten al dira?

—¡Ka! Erriko justiziyak ematen du bai-
mena, siñalatuaz biar dan denbora, baña ger-
tätzen danian gizon agarratu zurra, diru asko
azkatu nai ez duena kolpian, orduan...

—¿Justiziyak emango diyo?

—¡Bai, zera! Urtietako etxia badegu. Gaur
jarriko diyote arri bat, biyar bestia, urrengo
egunian ladrillu bat eta orla. Ezagutu nuen
langille bat, mutil gazte bikaña, etxe batian
lanian, eta etxia oso altxa baña len, bigaldu
egin zuten.

—¿Zergatik?

—Zartu egin zalako eta baliyo etzuelako
lanerako. Askok esaten dute andik pasatzera-
kuan: “¡Alare, alare! Oraintxen badirudi ez-
tuela asko falta”.

—¿Eta ez dira kejarzen?

—Bai, jauna; lenguan jaun batek ala zi-
yon, pareta zulotik burua sartuta: “¡E! ¿Zer
egiten dezute orrenbeste denbora lanketa orre-
kin? ¿Bukatuko dezute edo ez? ¡Demoni-
ñua!”

—¿Eta alkatiak zer egiten du bitartian?

—Gitarra jo. Joango zayo etxe jabe zurra-
ri igeltsero bat edanaz:

“—Nausi, igeltsua biar degu.

“—¿Noizko? —diyo jabiak.

“—Al dan laisterrena.

“—Emendik bi egunera an dezute.

Aterako dira gabaz senar emaztiak igeltsu billa goiko kalian egiten ari diran etxera, eta alegiya illargiyari begira baloude bezela ¿zer egiten dute?, patrikera guziyak igeltsuz bete eta etxian ustü.

—¿Arriyekin ere ori egingo dute?

—Ez, jauna; ortan fiñaguak dira; mutillari eraman azitzen diyote kolkua betian.

Argatik emen, etxerik berriyena zarra da.

—¿Zenbat pagatzen dezute petxa edo kontribuziyua?

—Baterez.

—¿Zergatik?

—Zergatik gobiernuak ez dakiyen erri au danik.

—¡¡A!!

“Baserritarra” 79, 12-10-1907.

GAU ERDIYAN

—Nausi... nausi... ¡Ori zurrunga! badi-rudi tronkuak serratzen ari dala... ¡Nausi!

—¿Zer demoniño dezute?

—¡Etxian sua degula, sua!

—¡Jesukristo! Seguru nago etxe jabiak eman diyola.

—¿Zergatik?

—Zergatik, nola goiko errentik kobratu ez duen, sua dariyola atera dalako.

—¿Zer egiten du jantzi gabe?

—¿Baña galtzerdiyak non laja ditut nik?

—Bat jantziya dauka eta bestia orra eskuan. Ibilli bedi azkar, bestela kiskalduko gera sopako ogiya bezela. Badaki ni ez nagola aseguratua *contra incendios*.

—Ez ni ere. Ua nere anayagana eta esan
akiyok datorrela beriala.

—¿Zer da, arkitetua?

—Ez; kofregillia.

.....

—¿Zer da or bullaka datorren ori, artille-
riya? ¡a! ez, ¡bonberuak! IXillago ez bada-
biltza sarri esnatuko dituzte lo gozuan dauden
sereno guziyak.

—¡Gizona, iya sartu zenidan eskallera abo-
tik!

—¡Bide! ¿Jostorrazakin zatoz onera sua
itzaltzera? Kanpora emendik —diyo bonbe-
ruak kaskua *a lo tuno* jarriyaz.

—Ni etxeko nausiya naiz.

—Baita ni berriz gobernadoria... eta eltzen
badizut galtzen ipurditik sartuko zaitut emen
(karrua erakutsiyaz), ¡Merke Trefe!

—¿Zer, Merke Trefe neri? Gu ez bagña-
ke, ez litzake izango kaballero bat, ¿eta burla?
Aurki jakingo dek satriak zer geran. (Bigarren
bizitzan ate joka)

—Dan, dan, dan.

—¿Zein da ordu ontan?

—¡Sua!

—¿Zein?

—Ni; bekua: ¡Tira mugi!

—¿Zer da?

—¡Aguro, baña aguro, kalera: zergatik kiskaltzia, ordu abetan eztu batere grazirik.

—¡Jesus milla bider! ¿Bertan al da?

—Bai; pasteleriyan orain sartu da.

—¡Maria Santisima! Zu, Julita, Julita.

—Andria.

—¡Geran aguro, geran! Artu itzazu kutxa, kutxilluak, kutxarillak, kutxariak, kutxaroya, eta korrika kalera.

—¿Baña orraztu gabe, ama?

—¡E! Kalera mundu guziya —diyo sastriak, txalekuen botoya lotuaz.

—¿Eta pianua, ama?

—Esan diyot neskatxari eraman dezala Pe-paren etxera.

—¡Ain nago nastua, eztakit zer egiten detan; tori, eraman nazazu au —diyo sastriari.

—¿Arratera?

—¡Jesus au burua! Loruen kayola zala uste nuen. ¿Zu, bai al dakizu suaren santu debotua zein dan?

—Santa Barbara —diyo sastriak.

—Bada ni, gutxi gora bera, San Andresi errezatzen ari naiz.

—¡Guazen, guazen! ¡A! kofri au balkoitik tiratzera nua —diyo sastriak berriz.

—¿Zertako?

—Ya Merke Trefe deitu ditan bonberuari sartzen diyotan burutik.

—¡E socorro!

—¡Ura, ura, onera, onera!

—¡Ura, ura!

—¿Baña nora?

—¡Ara! ura ¡ara!

—¡Ate ori jo ta ausi!

—Pun, pun, tris, tras, kataplun.

—Guazen, guazen, ¡Jesus, au kia!

Ateratzen da aurreko leyora Pañiku arrantzalia eta ala diyo:

—¿Itzali al da sua!

—Sua ez, baña bi sereno bai.

—Bueno; orduan esan akiyote or dabiltzan su guziyarí, egiteko mesere oneraño etortzia.

—¿Zertara?

—Ya tximitx abek akabatzen diran bein edo bein.

—Bonberuak baziaztik sua itzalita.

—Ago; ni ere baniak.

—¿I? ¿Nora?

—Lotara.

“Baserritarra” 80, 26-10-1907

BARBERUEN SEMIA

Oraintxe urte batzuek dirala, esaten ziran Don Rufinok, barbero sangratzalle fama aundikua eta korrikalari bikaña, nola Madrilla eramane zuten iru aldiz Sagastari enplastuak jartzera eta bigaldu zutela jantzi berriekin Ceta-ruz de Chiba inork usatu gabia txintxilik zuela. Eta gero ziyon satisfaziyo osuan:

—Badet seme koskor bat, pintatzen ez dezun alakorik ikusi. ¡Gizona, parte gaiztokua dirudi!

—¡Demontre!

—¡Arrituko zifake, ezeren indarririk gabe eta esku batekin zer gauzak egiten dituen!

—¿Afiziyo geyena zertara du, ontzitarra?

—¡Ka! Pintura gorritara.

—¿Maisu ona izango du?

—¡Bai zera! Dena burutik ateratzen du: ez dezu ikusi orlako kofrerik. ¿Badakizu Castelar?

—Bai.

—¡Eztu aitatzeko baliyo!

—¿Gaztia izango da?

—Nere aldian bai. Gusto aundi bat izango nuke, zuk eta zure lagunak ikustia.

—Bai guk ere.

—Pentza zazu zer izango dan, egun gutxiyan libru aundi bat punta puntaraño bete du.

—¿Esku batekin?

—Nola emen nagon.

—Igande bazkal onduan badakit non biltzen zeraten eta joango naiz nere libruakin.

Esan bezela, non azaltzen zaigun bere librua mantal urdin batian bildua duela, eta ala diyo, arro arro, librua azalduaz:

—Ara emen nere mutillen lan bat.

—¡Zer polita dan! —diyo batek.

—¿Bakarrik pintatu al du? —diyo bestiak.

—Bakarrik.

—Bueno; ¿baña ori zer da?

—¿Ez dezu ikusten? Loriak.

—¡Egiya! ¡Orain ikusten ditut! Uste nuen Panplonako txorixuak zirala.

Jiratu du beste libruen ostua eta diyo:

—¿Eta au? ¡Bizi biziya dirudi!

—¡Ori bai dala polita! ¿Bañan ez dezu esaten *cinematografuetan* bezela zer dan?

—Au da lorua.

—¿Lorua? ¿Ori al da neskatxari eltzetik txorixuak ostutzen ziyozkana? (1)

—¡Ka!

—Bada nik, egiya esateko, jarrua zala uste nuen berdez pintatua —diyo batek farrez bazter batetik.

—¿Eta au bere buru zuriyakin?

—¿Zeñen erretratua da ori?

—Ezta erretratua.

—¿Zer da bada?

—Tipula frantsesa, bere kirten luziak.

—¡Eta ala da! Nik isopua zala uste nuen.

—¿Eta au? Au bai dagola ondo egiña: badirudi usaya botatzen duela.

—¿Zer da ori?

—¿Ori, gizona? Salchichón de Vich.

—¿Ori? ¡Klainerien zorrua dirudi orrek!

—Danetan ontxuena au da. Auntza arbolari lotua.

—¿Auntza zein da, atzekua?

—¡Orixe bai ez dirala esan semiak, baña baliteke atzekua izatia!

(1) Ikusi: "Ustez laguna detan", *Auspoa* 4, 67' garren orrialdea.

—¿Ori're indarrik gabe egiña izango da?

—¡Naturalmente!

—¿Au bai al dakizute zer dan? Au da Santiago mendiko ikazkiña, librako ogiyakin.

—¿Zein ori? ¡Gizona, orrek apaiz protestantia dirudi panderuakin!

—¿Eta au ez al dezute ikusten?

—¿Zein da ori orren gizona?

—¿Au? Bere arpegi zabalekin eta musu gorri oyetan, ber bera dago. ¿Eztakizutela zein dan?

—¡Zein da!

—¡Bere ama!

—¿Ama? ¡Ja, ja, ja, ja! ¡Nik uste nuen Manixen semia zala!

Altxa ta an joan bere librua mantalpian bilduaz, kafia ta iru kopa pagatzeko betik gabe eta kolera biziyan esanaz:

—El que con chiquillos se acuesta
con su pan se lo coma.

“Baserritarra” 81, 9-11-1907.

ESTROPOZ BAT

Eskuan melokotoi aundi bat zuela, panparroi zijuan Gorraenera Beltxa, suplementu bat firmatzera, arkitu danian txikitako lagun batekin, zeñek esan diyon:

—Alegratzen naiz billatzia, zergatik mesere bat egin biar dirazu.

—¿Dirua?

—¡Ka! Nerekin igotzia gure etxera, nere emaztiari agarratzera.

—¿Ni? ¡*Un demonio!*

—Laguntza billa atera naiz, lajarik tristia bakarrik; ¡ainbeste egin biar dirazu!

—¡Baña, gizona!...

—Eman diyo nik eztaki zer miñ gaiztok, lurrian laja det arpegi guziya golpeka. ¡Tira, geran, geran!

Sartu dira biyak etxian eta arkitu dute andre tristia sillapian burua duela eta kizkurtua sakakortxu baten itxuran.

—Ya oyian sartzen degun —diyo senarrak, anketatik elduaz maindire bat plegatuko balitz bezela.

—¿Non dezu miñ? —diyo gizonak.

—Emen.

—¿Non?

—Emen.

—¿Non esan du? —diyo Beltxak.

—Or.

—¿Or, non?

—¿Or, gizona, or!

—¿Seguru al zaude or dezula?

—Atzo andre Martinak ala esan ziran.

—¿Nai dezu katillu bat borraja loriak?

Buruakin bayetz diyo.

—Artzez, artuko luke ingurdua're, ain da ona. Salto batian botikara nua, eta bitartian oztuko balitz, tiranti oyekin jo zazu bizkarrarian, izerdi-azteko.

Bakarrik arkitu zanian emakume arrekin, ala diyo:

—¿Baña zeñek sartu nau ni dantza abentan? ¿Laja ta joango nintzake! ¿Eta iltzen bada?

Ontan asi da: ¡ai! ¡ai!

—¿Non dezu miñ?

—¡Gañian!

—¿Non?

—¡Gañian!

—¡A, bai! ¡Mingañian!

Arrimatu zayon ontan mingaña ikustera, eman diyo ostiko bat tripan, non utzi duen okerra baña okerrago.

Allegatu da senarra bere borraja loriakin eta diyo:

—¿Nola dago?

—Mingañetik motel, baña bietatik sano.

—Zuaz beriala Ikatz kalera On Simon sendakiñagana eta datorrela aguro.

—¿Eta ez badago etxian?

—Datorrela bere andria; mingañ kontu oyetan, gizonak alako amar badaki. ¡Tira, mugi, gizona, mugi!

Beltxak presa arrekin txapela artu biarrian, artu eta jantzi du kinkien estalkiya edo pantalla. Kalera atera danian, guziyak begiratzen ziyoten txoraturik; ontan joaten zayo zeladore bat eta besotik elduta ala diyo:

—Atoz nerekin.

—¿Nora?

—¡Kontu gero kosk egin ¿e? ¿Zenbat denbora da erotuta zabiltzala?

—¿Erotuta ni? ¡Au burla bat da!

Nai ta nai ez, eraman du tiraka kuarto sokorrora, eta medikuak, galdeera batzuek egin ondorian, jarri diyo kopetian zapi zuri aundi bat, ur sedatiban bustiya eta lotu dute silla bati.

Noizbait, esanen meriyo, dana azaldu zanian, konturatu zan sendakiña etzala erua, ta ala, laja diyote irteten kalera.

Baña izanik oso biyotz onekua, alere joan zan Ikatz kalera medikua billa, galdetuaz:

—¿Emen bizi al da Don Simon?

—Emen ezta Simonik eta ez Zirineorik —diyo atera joan zan emakume lodi batek txit asarre.

—Bueno; orduan etorri bedi nerekin.

—¿Ni, zurekin? ¡Txiplatua zaude zu!

Onen gizona izanik mando aundi bat, azaldu da atian kolera biziyan eta diyo:

—¿Zertara zatoz onera? —eta erantzuteko betik gabe, eman diyo bultzada bat, non zilipurdika bota duen eskalletan beera.

Andik ordu erdi batera, allegatu da Gorraenera, begi onduan txunbo aundi batekin, txapelik gabe eta galtzaren atzian tarratara aundi bat duela, bidez suplementu inozente batekin mengatuaz.

“Baserritarra” 83, 7-12-1907

Z A R P A

Artsalde batian, Ziri'en sagardotegiyan arkitzen zan Zarpa, iñauteri askotan ateratzen dana artza jantziyan loitan garbi garbi dantzatzera; ari zan neska zar baten puska (arraya) jaten, sartu zanian Kintua boina galduta, filosofo bat egiñik eta galdetuaz txit seriyo:

—Aizak, Zarpa, ¿Eztakikala golpian zergatik jayo intzan?

—¿Zergatik jayo nintzan? Aguro jakingo dek orantxe. ¿Nola nai dek jayotzia ezer ez banintzan?

—Poto, poto —diyo Kintuak.

—Ni ez nindukan jayo, jayo egin niotekan, perratxikuak bezela.

—Ori eztek arrazoya, ori dek arpa jotzia.

—Bien, Zarpa —diyo Txariok, poxpoluakin sugur muturra beztuaz—; Barrio Jaranako enplasterak baña geyago dakik.

—Segi, Zarpa, segi —diyo Kintuak.

—Mundura etorri nindukan Uliya mendian Okendo bezela.

—¿Orduan Almirantia aiz? —diyo Kintuak.

—¿Almirantia? ¡Ura bizi izan bazan, beste zakurrak zaunka egingo zikan!

—¿Ik noizkua zala uste dek Okendo?

—¡Orrek zer ikusteko dik! Ik ez nak irabaziko naziyoko istoriyan.

—Ori, ori, Zarpa, segi istoriyan. Okendo dek itxas-gizona eta i?...

—Itxas-zapua —diyo Txariok farrez.

—Zuek eztakizute, munduratu nintzarian, nolako errezibimentua egin ziraten. “¡Mutilla, mutilla!” zikan txaloak izeba oso ezkongai batek! “¡Moñoñoa, moñoñoa!” nere amonak guardasola zabaldua, armayotik ateriaz.

—¿Amona ik?

—Nik, bai, nik; orain ere an zeuzkak bere oyaren buruko aldiñ Santa Teresa eta anketako aldiñ Fraskuelo.

—Segi istoriyan, Zarpa, —diyo batek.

—¡Ni nak arrantzalia eta arrapatzen dizkiat...

—Ipurdiko ederrak —diyo Txariok.

—Eta arrapatu biar dituenak —diyo igel-
tsero batek.

—Mixerikordi zarreko eskolan ikasi nikan
Fleury, maisu txikiyakin.

—¿Zer da Fleury? —diyo Txariok.

—¿Zer izango dek! Txipiroyak egiteko ma-
kina —diyo Kintuak farrez.

—Sugurra zikan dana zuloz betia, arratoyak
janda bezela.

—¿Zeñek, txipiroyak?

—Maisu txikiyak, eta egiten zitzayonian
kostra berdia, kristal puskekin arraskatzen zi-
kan.

—¿Baña nola?

—Tximiniya arraskatzen dan bezela ¡bo-
bua!

—Egin izan balu nik Manilatik ekarri nuen
balsamo milagrosuakin, etzikan arraskatu bia-
rrik.

—¿Zer egingo zitzayon bada?

—Ondo ondotik erori.

—Fleury n ikasi nikan Jakob eta familiyak
nolako desgustuak izan zituen eta torre Infel
noiz egiña zan.

—Bien, Zarpa, orrek trago bat merezi dik:
¡eran zagun!

—Bueno... Bete beatzigarrena, Pillipa,

—diyo Zarpak—, (*Eranda*) Eskolan, ez nik diyotalako, baña ango mutilletan astuena ni nindukan, eta ¿badakizute mulak, zer egin ziran batian?

—¿Zein mula?

—Maestrak, arren gizonari iya osasun guziya galdu niyola eta za kazuela patatakin tira ziakan.

—¿Eta ik zer egin ukan?

—Bildu ta jan. Eta ala zioz maisua: Anda y que te eduque un tiburón.

—¿Eta ik zer esan iyokan?

—Maisu chiquito, animal grande.

—Bien, mutill, orrek ere merezi dik beste baso bat.

—¿Bai?.. Pillipa, bete beatzigarrena.

—¿Berriz beatzigarrena? Tori, amar dira onekin.

*Amar baso artuta
amar baso ustu,
kontuetan zabilta,
Pillipatxo, justu:
neri amargarrena
kontatzia aztu,
sinisturik baso bat
nai nizula ostu,
orlako pikardirik
Zarpak izan eztu.*

—Ja, ja, ja, ja, bien, Zarpa, —eta ala diyo Kintuak far-burlan:

—Onek, kayeko portalia baña buru aundi-yagua dik.

—Aizak, ¿ez al aiz gogoratzen, batian kanyian sartzen ari zala Arbixuren barkua, popa gañetik ojuka nola deitu zikan?

“—Aizak, Kintua; ar zak kalabroti ori eta amarra zak goiko kañoyian; azkar, zergatik erresaka aundiya zio... ¿baña nora ua?

“—¿Emen?

—“¿Ori al dek goiko kañoya? ¿Ik zer uste dek, bia goya dala?

“—¿Emen?

“—Bestian, mutil, bestian; or, bai, or; ¡abil azkar!

“—¡Iri Kintua izena jarri zikana, ez uen, ez, Kintua!

“—Amarra zak or.

“—Bigarren birutriya emateko, ezta allegatzen.

“—¿Ez al dek soka muturrik patrikeran?

“—Ez; kartak bai.

—“Amarra zak orduan xoteko bastoyakin.

—Ja, ja, ja, ja. Bien, Zarpa, txetu dek Kintua.

—¿Zeñek tira du ikatz koskor au? Nik ere badet makilla, justiziya egiteko!

—Orrek ez dik indarrik justiziyan —diyo Kintuak.

—Bai ordia bizkarren gañian —diyo Zarpak.

—Zu, Zarpa; ez gero sagardorik pagatu gabe joateko modurik egin —diyo Pillipak.

—Pillipa, zure gizonari erregali eder bat egin biar diyot.

—¿Zer erregali gero?

—Merkaderren baporerik ederrena. ¿Zein demoniño ari da ikatz koskor tiraka?

—Ori dek, ori, Kintua.

—Eltzen badiat, sartuko at tiñakuan.

—¿Ik?

—Nik.

—Guazen kanpora.

—Guazen.

—Eta ala, tabernariya ayeri begira farrez zeguen bitartian, alde egin ziyoten bi pilisti-yuak sagardua pagatzeko denborik gabe.

“Baserritarra” 87, 1-2-1908

NEGUKO FESTAK

Graziyak udaran egiten diran festa ederrari eta orain negukuari, izateko nai degun bezelako mauka debaldeko jendiakin. Lengusuak dirala, koñata dala bost edo sei aur txikirekin eta etxia kanpotarrez puntaraño betia; ez degu arrayiak eze, kejazeko motiborik.

Patxi, nere adiskide baten semia, etorri da gaur goizian, diyonez, iñauteriyetako gurdikarrozen festa ikustera, eta, bidez, tabako pikatu pixka bat erostera.

Etxian daukat beti bezela *de gorra* eta gñera gelik ederrenian. Guziya da, Eguarriyetan bigaltzen dituztelako bi edo iru mondongo eta arrak jotako gazta bat edo bi.

Goizian sartu zait etxian, kofre gorri bat bizkarrian duela esanaz:

—¡Eup! ¡Ara ni emen!

—¡Gizona! ikaraz neguen Ezkurrenien sartu ote zifian nere etxia lajata.

—Etzait sekula gustatu *abusatzia*.

—Ori badakigu len ere. ¿Eta festa eder obetara bakarrik zatoz? —diyo andriak.

—Ekarri nai nituen beste bi lengusu, zuri gustua ematitak, esanaz ezereen gastu gabe egongo zirala, baña eztet logratu.

—¡Sentitzen det! ¿Zer dira, fabrikantiak?

—¡Ka! iltzegilliak; bat etorriko zan, baña nola sugurak konpontzen ari zaizkaten...

—¿Zer du, bada, kartoizkua?

—¡Ka! bestelakua.

—Nere famili guziya irrikitzen dago zu ikusteko.

—¿Bai, e?

—Lolita pianua jotzen du txetu arte.

—¿Bai al dakizu —diyo nausiyak— zein dan Mukit?

—¿Muki? gure erriko aspogillia.

—¡Bai zera! Musikero alemana; arrek aurrian jartzen diyon guziya jotzen du.

—¡Demontre!

—Txikiyak kantatzen du “Astuaren mitxelio” bere gangio ederrakin asnas betian.

—Orla gustatzen zait neri, frankeza guziyan itz egitia.

—Ortan ez dirazu irabaziko. Eman zayozu nere gizonari duro bat loteriyari jokatzeko.

—Ara durua.

—Etxia nola txikiya dan eta iru oi bakarrak —diyo nausiyak—, etzaitut konbidatzen nerekin lotara; zergatik nola diña konfiantza eztezun nerekin, etziñake egongo txit ondo. Baña egin zenezake nere mutil txikiyakin; oso kariñosua da. Gabaz eskatuko dizu ura eta beste zerbait ere esango dizu; zuk egin esaten dizuna.

Oyeratu da esan bezela bere mutillakin, jostatuaz ederki gau guziyan. Lenbizi eskatu diyo ura, gero beste gauza bat esan ez litekena, gero panderua eta azkenian jarri zayo gañian esanaz:

—¡Arre burro!

Ala, begirik itxi gabe pasa zuen gaba oso ederki.

Nausiya sartu da gelan esanaz:

—Altxa, altxa; gaztelura igo biar degu, Paristik inauteriyetako dakarten torre Infel ikustera.

—¿Musikerua al da?

—Torria karroza egiteko; ura da, ura, txokolatera.

—¿Baña kargatua ekarriko dute?

—Bai, merengiakin.

—¿Zertako?

—Arpegira tiratzeko.

—¿Karrozetan izango al da ontzirik?

—Bat or dago kayian, Terranovatik bakalluz kargatuta etorriya.

—¿Eta karakolik izango al da?

—Baita tripakiyak ere. ¿Eta gitar bat? Plaza baña aundiyagua.

—¿Eta jotzen al du?

—Arrek joko balu, ilko luke.

—¿Festa ederra izango da?

—Sekula izan dan ederrena. Aterako dira ogei mutill gazte oso pizkorrak eta ikatza baña beltzaguak.

—¿Afrikatik ekarriya izango dira?

—¿Bai, zera! Eztakit zeñen fundiziyuan edo sutegiyan ari diran egiten.

—¿Eta zer egin biar dute?

—Atzetik joango dira, auresku dantzatzen; gauza ikusgarriyak izango dira. Ez dezue esango kunplimentuan gabiltzala. Artu zazu andrien mantala.

—¿Zertako?

—Jazteko; eta atoz nere gelara, illia atzetik pixka bat tintatzera. Zure aita begira balego,

nolako frankezakin tratatzen zaitudan, ¡zer po-
za artuko lukian!

—¡Nik ala uste!

—Ara, nexkak ere emen dira. ¡Aituko ba-
zenduke onen boza eta sugurreko gangiua!

Baña Patxi nola illia tintatzen ari zan oso
gogo txarretik, etziyon batere arretik jartzen.

—Busti zazu eskobilla ondo, alik eta nekatu
arte —ziyon nausiyak—. ¡E! ¡asto lapiko!
¡ez nazu golpe txarra eman atzeko ezurrian.

—Tira, *listo* al gera? Orain gaztelura Eifel
ekartzen ikustera.

—Zer Ifel ta zer Peru, Mallorkinara, Ma-
llorkinara, pastelez konbidatzera, Patxi, —diyo
etxeko andriak.

—Mallorkinara —diyote denak ojuka.

—Guazen —diyo nausiyak—; Patxi, ekaz-
kitzu bi duro; *ya que* zure konbitia dan, kon-
tua neronek pagatu nai det.

Pastelez bete ta sartu dira etxian eta amak
ala diyo:

—Tira, txikita, pianora. Jo zazu *Karabine-
ro baten negarra*.

Patxi oso nekatua, lo gabe, eta asperturik,
pentsatu du joatia bere errira.

—¡Zer! ¿Etxera konparsa ikusi gabe?

—¡Konparsa geyago zertako! Orain kontu-
ratu naiz katua komodan preso utziya, eta ara
nua salto batian.

Artu du bere kofre gorriya bizkarrian, ausi
du ispillu bat kofriakin jota, eta an joan da ju-
ramentuka, eztakigu etxera edo Hotel Konti-
nentalera iñauteriyak pasa arte.

“Baserritarra” 88, 15-2-1908

BESTEREN ETXIAN

Nik eztakit zer paper edo periodiku klase azaltzen diran orain. Bat bada, eskaliak bezela ostiraletan goizian zortziyetako kalia dana; bada an ikusten dira tartian tartian gizon gutxi gora berako erretratuak printziak balira bezela. Bere egin nai guziya da, lukainka moduku oyek argitara ateratzia, ia pasatzen diran peseta faltsuen moduan eta kontatzia. Don Melinton piano jotzalliak etxia nola daukan jarriya; Juan Ramun txokolateruak amaiketakua non egiten duen, eta Kandido Trapuk andria zer ordutan jotzen duen.

Paper orrek badu eskribatzalle kolore gaiztoko bat, karabinero baten anaya, sartzen dana erozein etxetan, puntillak eta erretortak aterik ate saltzen ibiltzen diran ayen moduan.

Allegatuko da atera, tirako diyo txintxarriyari, eta, eztul oju bat egin ondorian, galdetuko diyo neskamiari :

—¿Emen bizi al da Onlako?

—Bai, jauna, —diyo neskatzak.

—¿Ikusi al nezake?

—Galdetzera nua.

Neskamiak egiten du beriala joan etorriya eta diyo :

—Galdetzen du ia zein dan.

—Esan zaitza, naizela eskribatzalle periodista eta natorrela berri billa.

—¿Berri billa? ¿Ezpadu eramaten gaur goizian erosi degun eltzia!

Egiten du berriz joan etorriya eta diyo :

—Sartzeko aurrera. ¡A! Egin beza mesere oñetaku oyek garbitzia zatar onekin.

Sartu da lustria dariyola ala onlako jaun onen etxian, arro arro, alderdi guzietara begiratuaz, eta diyo :

—Esango zizun neskak ni zein naizen.

—¿Zein neska?

—Esan nai det, neskamiak.

—Esan bada.

—Sartu nai nuke barrengo kontu oyetan.

—¿Neskatzak kontuetan? ¿Bai al dakizu zer esaten dezun?

—Ez, jauna, ez; zure kontuetan. Nik jakin biar det zer ordutan eskribatzen dezun eta zerekin, zenbat alkandora dituzun, galtzak zenek plantxatzen dizkizun, eta baraua zerekin austen dezun.

—¿Baña poliziyakua al zera?

—Ez, jauna; ni naiz eskribatzallia ta nator *notak* artzera azaltzeko paperian, zuk egin dituzun eta egin biar dituzun gauza guziyak.

—Ori ikusiko degu.

—Gañera etorriko da bigar erretratista bat.

—¿Zertara?

—Erretratatzera zure mai, sillak, armayo, libru eta zuk usatzen dituzun gauza guziyak.

—¿Zera're bai?..

—Baita.

—Baña, gizona, nik ez det usatzen ori.

—Igual da; egingo ditugu sala, gela, sukaldia eta apala; guk nai deguna da zerbait eraman zure izenian.

—¿Zuk eraman ezer nere etxetik? ¡Orixen orregatik! ikusiko degu ¡ju!

—¿Zenbat gantzontzillo pare dituzu?

—Eztakit seguru esateko, baña erropa zuriz ez nago ain gaizki.

—Bueno; ¿gustatzen al zaizu bakallua tomatiakin?

—Bai, jauna.

—Bueno, bueno. Orain, zure lizentziyakín, etxe guziya errejístatzera nua.

—Baña... zu...

—Emen ez dago ez surik eta ez urik: gauzak argitara emateko, egin biar dira ikusi. ¿Silla abek zeñenak dira?

—¿Zeñenak izango dira, neriak!

—Ez; zerekin egiñak diran.

—¿Ez dezu ikusten? egurrakin.

—¿Eta sillaren estalki oyek zer dira?

—¿Oyek? seda dobla.

—Etzazula gezurrik esan. Ori da bi errialeko perkala, emen eta Salamancan. ¿Eta au zer da?

—Katu bat, joan dan neguan il zitzaiguna eta, tristia, agindu genduen enbaltzamatzeko.

—¿Esango al degu zerbait paperian?

—Egin zazu nai dezuna. Baña estimatuko nizuke ondo tratatzia, zergatik zan oso biyotz onekua eta garbiya.

—Ondo da. ¿Zer dezu beste gela ortan? Ia, ikusi zagun.

—Ez; etzaitiala sartu. Or gordetzen degu erropa zikin guziya.

Eta orla, pasatzen diyo errebista etxe guziyari, sarjentuak kintuari bezela, eta noizbait etxetik bigaltzia logratu nuenian enplastu ura, deitu diyot neskatxari, esanaz:

—Begira: etortzen bada paperista ori nere galdian, etzayozula utzi sartzen.

—¿Eta joan nài ez badu?

Orduan deitu zaitza zeladore bati, zergatik neri eztit iñork errejistatuko etxerik. ¡A! jarri zazu eskoba nere gelako ate atzian.

—¿Baña, nausi, etxia garbitu biar al du?

—Ez; bizkarra garbitzeko zikiñ arri etortzen bada berriz.

“Baserritarra” 89, 29-2-1908

GAUZA PASIAK

Nik uste det, oraintxe jendia ezin keja litekela, gauza berririk azaltzen ez dalako: izandu dira klase asko eta neurri guzietakuak.

Mirabe gazte bat billatu dute krofe gorri batian sartua, mutillak or konpon esan diyolako; izandu dira burrukak, ardo dantzak, gurdi karroza ederrak, mozorro garbiyak beren petral zikiñakin, tranbiak ikazkin bat pasatzia...

—¡Gizona! ¿Aiza pasa al zuen?

—Nere patrikerako duro faltsua baña aizago. ¡A! eta arrantzaliak, beren sudesta, zira eta barrendik sagardoz alkitranatuak.

Eta ala da; ezta gauza tontuagorik, orduak pasatzia ezeren berri gabe baña.

Jaiki, jantzi, gosaldu, joan, etorri eta beti bat. ¡Igualekua da!

—¿Ez al dakizu zer dan?

—Éztakit ezer.

—¿Gizona! Telegrafuen ariyak gerri gerri-tik bi zeladore ebaki ditu.

—¿Demontre!

—Gañera erori dira iru etxe batian, ez *si* ta ez *no*, eta bertsolari famatu bat, bertsuak jartzen ari dala ogei ta bost zentimoko zigarruari, txetua laja du.

Orla, esan lezake batek baduela non denbora pasa, eta libratzen dala bere buruari tiro bat ematez.

—¿Zer egiten dezu lumeru oyeri begira?

—Ia Bolsa igo edo jatxi egin dan.

—Oyek berri onak dira.

—Ez; baña jakin nai det, etxerakuan kale garbitzalliak galdetuko balirake ere.

—Obe zuen igande iñauteriz goi ura garbitu bazuen.

—¿Bai gizona! Festa egin nai eta festa ezin egiñik, ura bai zala festa.

—Igeldoko maisuak ala ziyon bi egun lenagotik:

“Elurra eroriko da gogoz eta jelatuko da andik bi egun eta iru ordura sastre mear bat, oso ezaguna erriyan, bere osabari izayak jartzen ari dala”.

—¿Ori ezta azafran koloreko bat?

—Atzo aldatu zan etxe batetik bestera.

—Ainbesterañoko otzak egingo ditu —ziyon mendikuak—, komeni litzake denak sургurak txorruekin tapatuta ibiltzia. Kontxa gel-dituko da jelatua.

—¿Zein Kontxa? ¿Nere andre gaya?

—Ez, playa.

—¿Eta zerekin ausiko dute?

—¡Martilluakin!

Festak ikustera etorri zan mutil sano batek ala diyo zeladore bati:

—¿Bai al dakizu non bizi dan Juan Martin?

—¿Zein Juan Martin?

—Nere lengusua; Santanderren txokolatero ikasten egona lau illabetian.

—¿Eta zer?

—Esan zaitza, eudiya astian ez Jaungoikua-gatik guardasolik zabaltzeko, zergatik dala en-gaño bat.

—Orduan esango diyot legorra ari duela —diyo farrez.

—Ez, jauna; eudi itxuran asiko da kazka-rabarra, eta tinta onetik dakit guardasol guzi-yak dituela zulatuak, gaztañak erretzeko dan-boliña bezela.

—¿Eta zuk zer egingo dezu?

—Nik biatza txupatuko det, zergatik kontu iguala ditan.

Eta ala zan; aiziak artu zuen saltoka zijuán maskara bat eta jo azi ziyon kale jiran zijuázen danbolintero prinzipalenari. Eskerrak maskara Brakamanen lengusua zala, bestela sartuko ziyon eskuan zeramana.

Orla berri txarrak diranian, batek badu zeri far egin. Orain jaun jakintsuak diyonez, izango ditugu borraska gogorak bere propinakin, berari deizkiyon arte; baña turmoi eta eudi-jasa, gosaitako orduan astian, *rekomendaziyo* on bat billatu ezkeru, guziya atzera lezake egun batzuetako.

—Martina.

—Andria.

—Atera itzazu leyoko lora ontziyak eta amarra zaitia ondo oya-zurari, zergatik ni apalera nijua.

—¿Baña, señorita, zergatik?

—Zergatik amarretan allegatuko dan tronpa izugarri bat urez betia.

—¿Eta ori nondik daki?

—Igeldokuak esan diyo gure gobara-zaliari konfiantza osuan.

—Beraz atiak eta leyuak istera nua. ¿Eta tronpa etortzen bada?

—Esan zayozu, eztegula musika biarrik.

Tirrrrrrin.

—¿Nork deitzen du?

—Nik; ¿Zer egualdi egingo du gerora?

—Eguardi aldian borrasca; labetan puntuan kazkarabarra eta andik aurrera geldituko da txuri txuri.

—¿Eguzkiyakin?

—¡Ka! elurrez.

—¿Egingo al du mesere atzeratzia bigar arte?

—¿Zertako?

—Karrozen festa egiteko.

—Esanak daukazkit, labetan puntuan kazkarabarra asteko.

—Bigaldu beza beste norabait.

—¿Nora?

—Bayonako ondora igual eta pagatuko diyogu biar dana.

—¿Zer nai dezute artsaldian, egualdi ona?

—Bai, jauna, eta epela.

—Ondo da; ordenak ematera nua.

—¿Bai? ¡Biba gure maisua!

—Eskerrik asko eta agur.

—Bijua ondotxo. ¡Biba Igeldo!

“Baserritarra” 90, 14-3-1908

ESKEÑI BAT

—Tira, igo zaitia, Lorentxo; igo zaitia pastel bat eta kopatxo bat artzera. ¿Ez al dakizu gaur nere eguna dala?

—¡Gizona! Estimutzen dizut, zergatik ez tet artzen, arrantzara joan eta bost librako lupi batek aparejua eraman ziran ezkerro; eztakat ezertarako gogorik.

—Baña nik nai det igotzia. ¡Ala gora! Filarmonika baten billa atera naiz, jo dezan Katur inprenterua; ara non daramatan; ¡guazen, guazen, gora!

—Baña...

—Igo zaitia edo galduko ditugu adiskidetasunak.

Eta nai zuela edo etzuela, an igo ziran Zipriren etxera, non arkitu zan jende pilla batekin, erdi erdiyan zeukatela Zipriren *señora*, tariñ emien koloreko soiñ eder batekin, lazo oriz betia.

—¿Ez al dakizu au zein dan? —diyo gizonak.

—Ez naiz konturatzen...

—Eztakizu batian nola esan nizun, lapak jaten ari zala Tripakirenian, agiña erori zitza-yola?

—¿Orain konturatzen naiz! Badakizu zure etxian zaudela eta gu oso *frankuak* gerala. Atera zazu txaketa ori, bero dago ta.

—Bai; atera zazu guziya —diyo gizonak.

—¿Guziya? Gizona, etzait ondo iruditzen.

—Esan nai det, konfiantza guziyan gaude-la. Ikusten dituzun abek dienak lagunak dira, etorriyak broma aldi bat pasatzera; nola familiarik ez degun, penak aztutzeko pasa genezake nai dan umoria.

—¿Beraz ez dezu familiarik?

—Ez gizona —diyo señorak—; izatez izan nituen zazpi; baña denak egatu zitzaizkatan zerura usakumien antzera.

—¿Usakumiak zerura?

—Esan nai det txuri-txuri, garbi-garbi.

—Bien, Rufina, bien.

—Izena aztu egin zaizu. Ni deitzen naiz Jalaka. ¿Txokantia ala?

—Moro beltzena dirudi.

—Nere izebakin bizi zan kapitan artilleri tropako batek jarri ziran. ¿Zeri begira zaude, kristalian sartua dagon orri?

—Bai; zer ote dan.

—Ori da gure aitonak ibiltzen zuen trikor-niyua.

—Lorua zala uste nuen.

Ontan asi da Katu filarmonika jotzen eta bestiak kantari, maya biatz koskorra kin juaz, zaldiyen trotia balitz bezela.

—Kanta dezala Florak.

—Bai, bai; kanta dezala —ziyoten ojuka guziyak.

Flora zan gazte ille ori bat itxusi xamarra. Floraren ama nola nere aldamenian zeguen, esan ziran oso ixillik:

—Gaxuak txit boza polita du, baña nola zerbait gaxo dagon eztu mokadu bat progatu nai. Gaur eztu besterik artu, arraultz bat eta remolatxen bi xerra.

Asidanian Flora kantari *Arrantzalia naiz ta* filarmonikak lagunduaz, guziyak Jaungoikuari eskatzen geniyon, buka zezala irrintzi ura, ito baña len.

Ixildu zanian, diyo Ziprik: “Orain dantzara”. Eltzen dit besotik eta bultzada aundi bat emanaz ala diyo:

—Orra zure laguna dantzarako, emakume galanta.

Eta ala zan: soldaduen garita ziruriyen. Nere bizkarren laguntzan, balkoi batetik begira balego bezela, asi zitzaidan kalluak zapatuaz, bada laja nuenian, nere oñak ziruriten amarna zentimoko bi bollo.

Plater batian ekarri dituzte manteketan egindako eztakit zer zirala, bada pastelak baño linazekin egindako enplastuen itxura obia zeukaten.

Ardo txuriya, basuak bete orduko usuak ziran *juego de manos* bezela, eta gerora, musuak gorri gorri eginda, tripari elduaz farrez ala diyo nausiyak:

—¿Gabiltzan a la kinkirrinera?

Denak batian altxa ta ala diyote:

—Bai, bai; a la kinkirrinera samurrera.

Asi ziran bezela, eskutik elduta jiraka, beriala *kataplun* erdiyak lurrian ziran. Jo dute filarmonika jotzaillia silla batekin anpegiyan, eta *za* tiratu diyo filarmonikakin bati, eta ikusirik dana odoletan momentu artan Lorentxok,

arrapatu duenian eskalletako atia, etzan asarre
arrayiak eze, bañan bai esan ere bere modu:

—¡Ez naukate berriz arrapaturik ez Ziprik
eta ez beste inork onlako antzarakeriyetan!

Txuri

“Baserritarra” 92, 11-4-1908

GERTATZEN DANA

Ez nuen sinistuko beñere onenbeste lukainka zanik, erozein aitzakiarekin beti prest daudenak, beren burua edo anka azaltzeko argitara, naiz illun egon.

Momentu guzietan beti letzen degu paper edo periodikuetan baten eta bestien berriak, suertez ezagutzen ez ditugutenak, eta gñera ezereen ajolik ez digutenak denagatik.

Ez dira sei egun letzen nuela:

“Martin Talo eta Illargia, flauta jotzalle ontxuena, ezkontzen da Margarita Karikilloren alaba Monika jostunakin”.

¿Eta zer? ¿Zeñi zer ajola diyo, ezkontzen bada Monikakin edo Pasteleroren alabakin? Izatearren ere komeniko zayote ama alabari eta

flatu jotzalle ontxuenari. Gañerakuan, guri ez digu ezeren ajolik naiz beriala ezkondu non bizi guzıyan ezkongai egon.

Eta senar emazte gayak, nola andre Margaritak, usteko dute oso fede onez paperian azaldu diralako, mundu guziya eta beste asko katibatzen dirala ayen ezkontzaz eta esango dutela:

—¡Gizona! ¡Zenbat alegratzen naizen!

Eta bestiak:

—¡Zer da?

—¡Badakizu zein ezkontzen dan?

—¡Zein?

—Martin Talo.

—Ez dakit zein dan.

—Nik ere ez, baña erri guziya gustaturik dagola uste dute txoru oyek.

Beste bat ere bada Triku-beltz deitzen di-yoten arro bat, urte osua pasatzen duena, moduak ezin egiñik paperetan azaltzeko. Lengu-
an ala zıyon periodikero bati.

—¡Nai al dezu berri on bat papererako?

—Bai, bai. ¡Zer da?

—Iru egunian egondu naiz oyian gibelego miñez.

—¡Eta zer?

—Alegiya esaten dizut, nai bazenduke zure paperian jarri.

Eta nola beñere falta eztan eskribatzalle
alegre bat, berriyak argitara illun eta oker
emateko, gibelesko miñez egon danak usteko
du, kaleratzian esango dutela beragatik:

—Or dijuan ori da miñez egon dana.

—¡Zer mutil zuriya dan! (Ikatza egiteko).

Orrentzat gustorik aundiyena da galdetzia:

—Baña ¿zer izandu dezu?

—¿Zer? —alegiya, galdeera ura zer dan
ezpaleki bezela.

—¡Periodikuak diyotenez!...

—¿Baña zer da?

—¿Ez al dezu irakurri periodiku "*Putiren
mandataria*"? Bada orrek diyo miñez egona
zerala gibeletik.

—Ez nekiyen ezer. Baña, gizona, gezurra
dirudi, paper txar oyek bati ez diyotela utzi
biar bizitzen.

—¡Zer nai dezu bada!

—Ikusten danez, bat ezin jarri liteke mi-
ñez mundu guziyak jakin gabe, eta neretzat
ezta ezer amorrasiyo geyago ematen diranik
orrek baña.

—¡Ar zazu pazientziya, gizona!

—¿Pazientziya? ¡Errez esaten dezu!

Paper ezkribatzalle onek berak, ara nola
kontatzen zuen farrez beste onlako *gordian*
egon nai duen batengatik:

“—Arrituko zera nere gonbitiaz —esan ziran— baña nola naizen periodiko guziyen laguna umetandik eta gaur izanik nere señooren eguna, jango degu gure etxian zure konpañiyan. ¿Estimatuko al nazu?

“—Hotel Kontinentaletik *pasatzeko* asmuetan nintzan, baña... konta nerekin.

“Bat zala edo bestia zala, bazkaldu genduen bere etxian. ¿Baña zer zan ura? Sopa, uste det arto bizarrarekin egiña zala, kortxu estofatua ederki jarriya, kartoizko egazti bi, uste det berak egiñak zirala, eta ondoren txinako mizpirak oriz pintatuak, aizezko pelotak ziruriten.

“Aben ondoren, artu du txarro urdin bat eskuan, igo da mai gañera eta esan ditu nik eztakit zenbat astakeri, sagarra zertatik sortzen dan eta txipiroi gisatuak zertako diran.

“Gero guziyen bukaeran, ala esan ziran belarrira:

“—Egin nazazu mesere, esan detan guziya zure paperian jartzia, zergatik esango dizut frankeza guziyan: Nik nai nuke atera probintziyako diputadu nere erritik, eta logratzen badet, uste detan bezela, bigalduko dizkizut etxera sein mondongo, klarinetien zorrua añakuak.

Txuri

“Baserritarra” 93, 25-4-1908

B I D E A N

Nik uste det burni-bide infernutar abek baño, obiak zirala denbora bateko Galera paxara ederrekuak: Madriltik afaitatu berriyak atera eta allegatzen zirala Donostiyara iya pe-txurañoko bizar primoriarekin.

Orain kotxian sartu eta otzak, edo danak alkarren gainka beruak ito nayian, sugur zulue-tatik autsa sartuaz rapia bezela; batek kallua zanpatuaz eta bestiak sabela estutuaz.

Gure kotxian badator señora bat, aguar-dinta alkanforatu usai pestia botatzen duela, er-di pasatu alakua, lanazko txakur petral bate-kin, belaungañera saltatu eta asten dana arras-kaka galtza guziyak zulatuaz.

—Txuliya —diyo señorak noizian bein—, milizka zazu jaun ori.

—¿Ni txupatu zakur orrek? —diyo errementari beltz batek boinari tiriaz—. ¿Karamelua naizela uste al du?

—Orra, ikustiatik da zer mantxua dan. Tira, Txulita, atera zazu mingantxua.

Txakurrak egin diyo alako begiratu xamur bat bere señoari eta asi da banaka banaka guziyak milizkatzen, baña allegatu danian errementariyagana, artu du apalian zeukan ardo zatua eta jo eta akabatuko zuen, ez baziyoten eldu esanaz :

—¡Gizona, zer zuaz egitera?

—Txupa dezala bere ama, ez ni.

—¿Baña ez dezu ikusten txiki lanazkua dala?

—Igual da algodoizkua bada're.

Ontan allegatu da billetien enkargatua eta diyo oso modu txarrian :

—Ia txakurren billetia.

—¿Nola? —diyo señoarak ojuka—. ¿Sei urte ez dituen animala txiki batek, pagatu biar du billete osua gizon batek bezela?

—Eztago erremeryorik.

—Ori da erreparo gutxi izatia kriantza oneko señoa batekin. ¡Ai! Deskana egiteko zorriyan nago iya. Jarri nazazu eskua kopetian —diyo errementariyari—, ikusiko dezu zer izerdi otza.

—Nik ez dizut jarriko eskurik ez or eta ez beste inun.

Azkenian urrikaldurik enpliatua, uzten diyo txakurrari billete erdiyakin, lanazko aur bat balitz bezela.

Ontan allegatu geranian Beasaiña, non ikusten degun sekulako jendia trenen zai, kotxietan sartzeko alkarren gainka.

Señora jarri da txutik atian, ango sarrera galazteko baña... lo niok.

Bestien tartian, or dator karabineruetako ofiziale arpegi gaiztoko zar bat, saku batekin, kartoizko kaja, guardasola, bi kañoiko eskopeta, esku makilla eta iru edo lau ezpata, guziyak espartzuz lotuak. Txakurrak ikusi zituenian puska ayek guziyak, asi da zaunkaz ero baten modura.

—Emen ez dago lekurik orrenbeste gauzentzat —diyo señorak.

—¿Ez, e? —diyo ofizialiak— txakurra ostikoz juaz.

Bota ditu puska guziyok eseri lekura; aterra ditu loiz betetako bota aundiyak eta elefantien belarriyak zirudite zapatilla zarpaill batzuek jarriyaz ala diyo mustatxuari tiriaz:

—¿Ikusten du nola zeguen lekua denentzat?

—Bai, guk egin degulako.

Ofizialien atzetik sartu da zortzi bederatzi arruako gizon bat, izerdi patzetan oso nekatua eta *plasta* non eseri dan txakurren gañian. Au karrasika asi darian, señora, ero bat egiñik, atzamarkatu nai zuen gizon lodiya. Errementariya're sutu da señorak kallua zanpatu diyo-lako eta diyo trago on bat egiñaz:

—Gaur badakit ankaz gora zein joango dan leyotik.

Karabineruak altxa ta artu du bi kañoiko eskopeta, errementariyen alde ateratzeko, ardo trago bat eman ziyolako.

Noizbait guziya sosegatu darian, gizon lodiya gelditu da lo, zurrungaka nere bizkarren gañian, igortziyaz txit legun ille muturrakin masallian. Errementariyak trago ta trago egiñaz, atera du eskopeta añako saltxitxoi bat eta, xerrak janaz, asi zan kantari orruaka: ¡Mandilola, Mandilola!

Donostiyako estaziyora allegatu nintzarian, egin nuen juramentu ez nintzala nere biziyan geyago iñora joango, alik eta jarri artian Galera patxarakuak, len ziran bezela.

Txuri

“Baserritarra” 94, 9-5-1908

BETIKUAK

Lendabiziko urtian iltzeko zezenak jokatu ziranian plaza berriyan, ikustekuak ziran billete eskaliak, oso latza gutxikuak batzuek, baina bestiak batere gabiak; ez dakit deitzen diran *gorrones* edo *gorriones*.

—¿Gogoratuko zera ni zein naizen? —diyo oyetako bat juntako buru egiten duenari.

—¿Ni?

—Gizona, guk erregalatu genizun katua, Arrandei kalia bizi ziñala.

—¿Ez daukat goguan!

—¿Eztakizu zure amagiyarreba gau batian oyetik erori ta nola joan giñan nere señora eta ni katillu bat porru saldakin?

—¿Eta zer nai zenduen orain?

—Barrera pare bat itzalekuak.

—¿Katuen truk?

—Baña Astigarrara sagardua eratera joatian erri guzian sabalduko det sona, esanaz, zezen ederrak zirala... eta merke.

—¡Kaxo, erri! —diyo beste batek, eskua bizkarrian pasiaz.

—¿Zer dakazu?

—Gutxi; gauza gutxi, lagun zarra; iru billete iguzkitakuak, besterik ezer ez.

—Beztu egingo zerate iguzkitan.

—¡Ka! Guardasol japonesakín joango gera.

—¿Baña zu zein zera?

—¿Ni? ¡Ederra dek orixe! ¡Ni zein naizen! Fraskuelorekin lau bider itza egiña naiz ni, Parisa joan baña lenago.

—¿Parisen izandua al zera zu?

—Ni ez; ura.

—¡Eta zer!

—Ni naiz Fraskueloren banderilla partizallien anaya: Ixkiñen (1) kajero partikularra izandua.

—¿Besterik ezer ez?

—Korrída denboran Olibanen mulak eta nik mai batian jaten genduen. ¿Naizu geyago?

(1) Garai bateko Donostiko arlote bat, toreatzen eta ibiltzen zana.

—Bien, Pepehillo; bien.

—¡Zein uste dezu izandu naizela ni!

—Tori, orra iru billete. ¿Ez al dezu dirurik biar?

—Ez; eman zayozu pobriari. ¡Aufa! orain erri guzian zabaltzera nua.

—¿Zer, debalde eman dizkizutala?

—Ez; Donostiyan dan gizonik ederrena zu zerala. ¡Aufa!

—¿Emen bizi al da presidentia? —diyo mirabe gazte batek.

—¿Zerena?

—Zezenena.

—¿Zer nai zenduen?

—Karta au eman dit señorito Florok.

(*Letzen*) “Nere adiskide Kapiku: bigar nola zezenetara joan nai nukian nere famili guzian, eta zuk nola orrekin patrikerik azkatzan ez dezun, uste det bigalduko dirazula palkotxo bat itzalekua. Ez nizun esan nai baña gogoratuko zera, nola kokotzetik eldu ta erakutsi nizun igeri”.

Floro

—¿Bera zertan ezta etorri?

—¡Ortarakoxe dago! ¡Eztu errebajatu nai onlako uskeriyetara.

—Ulojia, Ulojia; bera or dago.

—Guazen, ama, beregana.

—Egun on... ¿Ez al da billeterik guretzat?

—¿Zein zerate?

—¿Zein geran? ¿Ez al du ikusten? Ama alabak.

Au zan Fraternal zarrian (1) kantatu eta arpa jotzen zuena.

—Ez genduen gau batian kanpora bigaldu?

—¿Bai zera! Kantatu zuenian berak bakarririk duuan... “Ezta txardiña, bada txardiña”, bere erretratua Madrilko paperetan atera zuten.

—¿Zein paperetan?

—Gazetan, eta erregalatu ziyoten txarro bat txino doratuakin eta pakete bat tabako pika-tua.

—Beraz bi billete.

—Ez; asko ditut lau; orla joango gera ni ta nere gizona, Ulojia eta bere nobiyua.

Eta nola juntakuak kontu aben guzilyen eta geyagoren berri dakiten, egiten dutena da iru baliyo duena lau kobratu, eta motu ontan diruakin dijuan gizarajuak pagatzen du beria eta gorronez edo gorrionesena eta... *tutis contentis*.

Txuri

“Baserritarra”, 95, 23-5-1908

(1) Denbora bateko Donostiko lagun-arte edo soziedade bat.

BAZTANGA

—Baztanga erua baña gauza txorruagorik ezta —esaten zuen Etxeta jakintsuak, ankari eragiñaz eta zigarro bat eskatuaz.

Eta ala diruri: eztakit zein erritan, sartu da uda azken batian goizian zortziyak aldera egun onik eman gabe, eta beriala asi da arpegitik arpegira, bixigak egiten. Baziran sugurrak barbariñak ziruritenak eta legortzian gelditzen ziranak ginbaletakin zulatuta bezela, eta alare etzuten aitortu nai baztanga eruak juak zirala.

Bat bazan Migel motxaren lengusu propi-yua, amar edo amabi mazkuri zituenak arpegian, eta galdetzian:

—¿Zer da ori? —esaten zuen txit seriyo:

—Au da uda azkeneko koipia. Ateratzen zaizkit urtero ale gorri abek eta nik laja egiten diyotet nai dutena egiten.

—Ondo egiña; eta gañera ederki ematen dizute.

Eta nola denak edo geyenak ezkutatu nai dituzten baztanga txoruen lanak, ez dute ondo artzen esatian:

—Gizona, zuaz oyera.

—¿Ni? ¿Zergatik? —erantzuten du oju asarrian—. Ederki nago Jaunari graziyak. Nere osasuna da brontzekua.

Eta asitzen du ukabillazoka petxuan eta saltoka, bikuak egitera balijuake bezela.

Baña etxera joatian oso bildurtua, gutxiyenez pestiak jua balitz bezela, ala ziyon ojuka andriari:

—Jarri nazkizu *sinapismuak* eta berrogei bat sangrijuela belarri atzian.

Andriak, ezaguturik zein zan, esaten ziyon:

—¿Gizona, ez dezu ezer!

—¿Ezetz? ¿Atrebituko zera esatia au ez dala baztanga? ¿Noiz izandu ditut nik onlako grano gorriyak? ¿Sekula ikusi al nazkizu?

—Sosega zaitia, gizona. Oyek atera zaizkizu, atun eskabetxatua jan dezulako.

—Nik detana da baztanga, eta badakit zeñek pegatu ditan.

—¿Zeñek?

—Txertuk; zergatik ardoteгиyan beti nere onduan eseritzen dan. Ostegunian etzuen besterik egiten, besteren ardua eran eta arras-katu.

—Ori da bildurra.

—Begira, dana dala; ni ojera nua, eta ikusten badezu juiziyua galdu detala, esan nazazu beriala, zergatik ez det il nai ezaguerik gabe.

Eta modu ontan azkenerako ikusi zan, baztanga erua baño ero geyago zala erri artan.

Txuri

“Baserritarra”, 102, VIII, 1908

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1.—*R. Artola*

SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso
asko.

2.—*M. Soroa*

GABON, ¡AU OSTATUBA!, ANTON KAIKU

3.—*P. Apalategui, S. J.*

EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.

4.—*Pepe Artola*

USTEZ LAGUNA DETAN ta beste bertso
asko.

5.—*P. M. Urruzuno*

EUSKALERRITIK ZERURA ta beste ipui
batzuk.

6.—*Toribio Alzaga Anabitarte*

RAMUNTZO, iru egintza ta sei laukidun
antzerkia.

7.—*Ramos Azkarate*

GALTZAUNDI ta beste bertso asko.

8.—*Antero Apaolaza*

PATXIKO TXERREN. (Nobela).

9.—*Bitoriano Iraola Aristiguieta*

OROITZAK (Ipuyak)



1027894

JB-884

